



S O R T U , A N T Z E R A T U , K O P I A T U , P L A G I A T U

# DE LIBRO

# IKERKETA BAT

**IRAKASLEEN GIDA PRAKTIKOA**

DBH ETA BATXILERGOA

Nola egin lan original bat,  
ongi dokumentatua, eta egile  
eskubideak errespetatuko dituen

**esdelibro.**es

**CEDROren heziketa-programa bat**

**Definizioa, diseinua eta garapena**

**NETURITY**

Espezialistak

Jabetza intelektuala  
CEDRO (José Pindadoren lankidetzarekin)

Dokumentazio aholkularitza  
Natalia Bernabeu eta M.ª Jesús Illescas

Material inprimatuaren eta identitatearen maketazioa eta diseinua  
Pierre Comunica

Itzulpena  
Eskame Mujika Gallastegi



**SORTU, ANTZERATU, KOPIATU, PLAGIATU**

## *De **libro*** ikerketa **bat**

DBH-ko eta batxilergoko irakasleen gida praktikoa



## de libro, ereduzko, peto-peto.

Zehazki. Gaztelania – Euskara Hiztegia.  
Ibon Sarasola (2005). Irun: Alberdania.

**Es de libro-k liburuak, irakurtzea, sorkuntza eta egile eskubideak errespetatu eta balioetsiko dituzten jarrerak eta portaerak sustatu nahi ditu.**

Es de libro jaio zen ikasgelan hainbat baliori buruzko informazioa eta sentiberatasuna zabaltzeko asmoz; hala nola, liburuak, sorkuntza, eta jabetza intelektualarekiko errespetua.

**Esdelibro.es** izenburupean, CEDROk hezkuntza komunitateari zuzenduriko programa bat bultzatzen dihardu, liburuak tresna bezala balioesten laguntzea xede harturik; liburuak informaziorako eta ezagutzarako atea baita, eta hezkuntzaren eta kulturaren zutari.

Programa hau –Espainia mailan aitzindaria– arduratuko da ikasgeletan hedatzeaz sorkuntzak eta egilearen irudiak duten garrantzia, eta, halaber, sorkuntza ahalbidetzen duen jabetza intelektualaren eskubideak errespetatzeko beharra.

**Esdelibro.es** abian jartzen da 2006-2007 ikasturtean, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Kultura Ministerioaren babesarekin; proposamen sorta hau Espainiako hezkuntza komunitatearentzat pentsaturik dago; izan ere, informazioa eta behar diren materialak eskura jarritz, aukera ematen baitio liburuaren ekosistema, irakurtzea, testuen sorkuntza, egile eskubideak eta horiek hezkuntzaren eta kulturaren arloan duten axola handia hobeto ezagutzeko.

## ES DE LIBRO BARRUAN:

### HEZKUNTZA WEB ORRIA

Ikasleei, irakasleei eta hezkuntza alorreko gainerakoei zuzendua.



### IRAKASLEEN GIDA

**De libro ikerketa bat. Ikerketa lanak nola egin.**  
DBH eta batxilergoa.



### IKASLEEN GIDA

**De libro ikerketa bat. Ikerketa lanak nola egin.**  
Hamabi eta hamazortzi urte bitartekoentzat.

### MATERIALAK

Hezkuntzako ikuskaritzarentzat eta hezitzaileen guneetarako.



### PROMOZIO KANPAINARAKO

- Horma-irudiak, erreprografia generako, eskola-liburutegirako eta informatika gelarako.
- Koadernoak.
- Elastikoa.
- Eranskailua.





# De *libro*-koa al zara ?

## bat sei

**Irakurtzea**  
atsegin baduzu...

Garrantzia ematen badiezu ikasleen **sorkuntza-lanei** eta kopia eta plagioa saihestea helburu duten lanak agintzen badizkiezu...

## bi zazpi

Eskola-orduaren tarte bat eskaintzen badiozu irakurketari eta testuak **ulertzen** irakasteari...

Jakitun bazara **egileek** beren lanak sortzeko egin behar duten ahaleginaz eta beren egile **eskubideez**...

## hiru zortzi

Ikasgelan liburuak, Internet eta bestelako dokumentuak erabiltzeko joera baduzu eta iturri desberdinak kontrajarriz **ikertzen** irakasten baduzu...

Irakastei badiezu ikasleei kantsultatzen dituzten obrak beren lanetan txertatzen eta **aipatzen**...

## lau bederatzia

Ikasleekin **eskolako liburutegia** erabiltzeko ohitura baduzu eta nola erabili behar duten irakasten badiezu...

**Fotokopiak** axolagabeki ez egiten saiatzen bazara eta behar dituzunean baimendutako lekuetan egiten badituzu...

## bost hamar

Ikasleak **liburutegi publikoak** eta **liburu-dendak** bisitatzeraz animatzen badituzu...

Uste baduzu **garapen pertsonala eta profesionala** lortzeko liburuak eta irakurketak berebiziko garrantzia dutela...

de *libro*-koa zara!





# Txosten honen aurkibidea

Zer dela eta material hau?	<b>6</b>
Zer edukiz osatzen da?	<b>7</b>
Ikertu urratsez urrats	<b>9</b>
© zalantzak	<b>99</b>
Bibliografia	<b>106</b>
Jarduerak gaiez gai	<b>107</b>

# Zer dela **eta** material **hau**?



**Sortu, antzeratu, kopiatu, plagiatu**-ren sorrera zuzenki loturik dago bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleek maila horietan garatu behar dituzten trebetasun batzuekin, ikerlanak egiteko dokumentuen erabilerari dagokionez. Era horietako jardueretan argi ikusten da ikasleek zailtasunak dituztela iturri desberdinetako eta egile desberdinen idazlanen sintesia egiteko, zatiren baten hitzez hitzeko kopia egin gabe eta adabakiz osaturiko testu bat sortu gabe. Arazo hori dokumentu inprimatuekin ematen bazen lehen, orain areagotu egin da dokumentu elektronikoekin, oso erraz kopia baitaitezke, eta baita erantsi eta inprimatu ere.

Hortik, bada, ikasgai guztietako (humanitateak, zientziak, arteak...) irakasleei material lagungarri bat eskaintzeko egokitasuna; zeinaren bitartez gelan landu ahal izango diren ikerketa bat egiteko behar diren trebeziak, kontuan hartuz beti ere jabetza intelektuala eta egile eskubideak. Hori lortzeko, ibilbide bat proposatzen da ikerketa baten aldi guztietan zehar, eta ikerlan pertsonala eta ongi dokumentatua iristeko behar diren edukiak eta abildadeak sakon eta zehatz lantzen dira, gogor eginez, halaber, sortze-lanak –lan originalak– duen garrantzian, eta inspirazioa, imitazioa, kopia eta plagioaren arteko mugak garbi bereiztean. Horren guztiaren jomuga litzateke ikasleak trebetasun horiek menderatu ez ezik antzeko egoeretan erabiltzea eta, oro har, ikaslearen ikasbide autonomoa bultzatzea.

Material honen osagarri da “*De libro* ikerketa bat” ikasleen gida. Ikerketa lanak nola egin. Hamabi eta hamazortzi urte bitartekoentzat.

## **Sorkuntza pertsonala sustatzeko eta kopia bereizkuntza gabea eta plagioa baztertzeko**

Material praktikoak, irakasle arduratsuen eskura, ikasleak lan pertsonalen sorkuntzan hezteko, eta kopiak eta plagioak dakartzaten arazoak saihesteko.

## **ikasketen alorretan: humanitateak, zientziak, arteak...**

Baliabideak, ikerketa lan bat garatzeko edozein alorretan: Gizarte eta Natura Zientziak, Hizkuntza eta Literatura, Filosofia, Kultura Klasikoa, Teknologia, Hezkuntza plastikoa, Matematika...

## **Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan eta batxilergoan zehar**

Proposamenak, hainbat hezkuntza mailatan erabiltzeko, nahiz eta jarduerak bereziki pentsatuak izan bigarren hezkuntzan eta batxilergoan lantzeko.

## **lan eginez paperean, ikasgelan, Interneteko proposamen batzuetan.**

Ikasleek ikerlan baten prozesu osoa garatzen ikasiko dute, hainbat euskarritako dokumentuak erabiliz, eta lanaren emaitza argitaratu eta besteekin partekatu ahal izango dute, Interneten berentzat propio sorturiko gunen batean (esdelibro.es).





# Zer edukiz osatzen da?

**De libro ikerketa bat.** Irakasleen gida praktikoa alor guztietako irakasleriari eskaintzen zaion material lagungarri bat da, gelan lantzeko ikerlan jator, sortzaile eta zorrotz bat egiteko behar diren abileziak. Hamaika urratsetan egituratzen da, non urrats bakoitzari dagozkion jarduerak iradokitzen diren, ikerlan pertsonal eta osoa egitea helburu harturik.

## Egin beharreko urratsak:

### 1. Kontratua.

Ikertzaile izan nahi?

### 2. Ikergaia.

Ba al duzu ikergai on bat?

### 3. Plangintza.

Antolatu lana.

### 4. Ideiak.

Ordenatu zure ideiak diagrama batean.

### 5. Iturriak.

Non bilatu informazioa?

### 6. Dokumentuak.

Zeintzuk izan daitezke interesgarriak?

### 7. Informazioa.

Hautatu garrantzia duena.

### 8. Gidoia.

Ganorazko gidoi bat egin.

### 9. Originala izan.

Nola egin ez kopiatzeko eta ez plagiatzeko.

### 10. Txostena.

Nola egin ikerketa-txosten on bat.

### 11. Interneten.

Argitaratu zure lana esdelibro.es web orrian.

## Ikertzailearen hamaika urratsetako bakoitza honako elementuez osatzen da:

### Irakaslearen giltzak

#### Helburuak:

Ikasleak iritsi beharreko jomugak.

#### Lan-plangintza:

Jardueren proposamenak eta, gutxi asko, egiteko beharko litzatekeen denbora.

#### Ohiko zailtasunak:

Ikasleak topa ditzakeen arazoak.

### Jarduerak

#### Zer egin behar duzu?:

Urrats bakoitzeko jardueren azalpenak eta helburuak.

#### Gure proposamena:

Jarduerak, argibideekin eta laguntzekin.

#### Eta gainera:

Jarduera osagarriak.

#### Ebaluazioa:

Ikaslearen aurrerapausoak neurtzeko jarraibideak.

Material honek, gero, © **zalantzak** atala eskaintzen du: egile eskubideak errespetatuko dituen ikerlan bat egiteko aholkuak; eta, halaber, gaiari buruz ohiko galderen hautaketa bat, praktikoa izateko asmoan.

Azkenik, material honen amaieran, jardueren aurkibidea ematen da: **Jarduerak gaiez gai.**



# Ikertu urratsez urrats

## 1. urratsa

### Kontratua

Irakaslearen giltzak	10
Jarduerak	11

---

## 2. urratsa

### Ikergaia

Irakaslearen giltzak	18
Jarduerak	19

---

## 3. urratsa

### Plangintza

Irakaslearen giltzak	26
Jarduerak	27

---

## 4. urratsa

### Ideiak

Irakaslearen giltzak	32
Jarduerak	33

---

## 5. urratsa

### Iturriak

Irakaslearen giltzak	42
Jarduerak	44

---

## 6. urratsa

### Dokumentuak

Irakaslearen giltzak	52
Jarduerak	53

---

## 7. urratsa

### Informazioa

Irakaslearen giltzak	60
Jarduerak	62

---

## 8. urratsa

### Gidoia

Irakaslearen giltzak	70
Jarduerak	71

---

## 9. urratsa

### Originala izan

Irakaslearen giltzak	76
Jarduerak	77

---

## 10. urratsa

### Txostena

Irakaslearen giltzak	82
Jarduerak	84

---

## 11. urratsa

### Interneten

Irakaslearen giltzak	94
Jarduerak	95

---

# I. urratsa: **kontratua**



## Irakaslearen giltzak

### Helburuak


- Ikerlan bat egiten ari direnean, ikasleak kontura daitezela nola jarduten duten, beren gaitasunak zeintzuk diren eta beren mugak non dauden.
- Ikerlan bat ondo burutzeko egin beharreko urratsak ezagutzea.
- Prozesu guztian zehar egile eskubideak errespetatzeak duen garrantzia jabetzea.

### Lan-plangintza

	GURE PROPOSAMENA				ETA GAINERA
	Zuk zer: ikertu, edo lana paretik kendu?	Urratsez urrats	Balio du, ez du balio	Ikertzailearen kontratua	Termometroa
	Testa	Linean	Linean	Txostena	Jokoa
<b>Jarduerak</b>	Ikasleak gogoeta egiten du, eskolako lanak egiterakoan dituen ohiturez.	Ikasleak ikerketa batek eskatzen dituen aldi guztien ikuspegi orokorra izatea lortzen du.	Animazio baten bitartez, ikasleak lan batean zer egin behar den eta zer ez ikusten du.	Ikasleak agintzen du lan-prozesuaren urrats bakoitzean hainbat baldintza beteko duela.	Galdera sorta txiki bat, © gogoan hartzeko.
<b>Denbora</b>	15 minutu	15 minutu	15 minutu	15 minutu	15 minutu
<b>Hezikuntza maila</b>	DBH-ko 2. zikloa Batxilergoa	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak	DBH-ko 1. eta 2. zikloa

### Ohiko zailtasunak

Eskolako lanak egiteko orduan, gazteek arazoak izaten dituzte ikerketa batek eskatzen dituen langintzen ibilbidea jarraitzeko. Atariko unitate honetan, ikerketa on batek igaro beharreko aldiak aurkezten zaizkio ikasleari, eta saiatzeko da kontura dadin zein garrantzitsua den heziketa maila bakoitzean trebetasun batzuk ikastea, jabetza intelektualaren auziari dagokionez.



## Egile oro da de bere lanaren erantzule.

Edozein egilek, bere obra argitaratze hutsagatik, konpromisoa hartzen du obra zuzendu dion jendearekin: egilea bere lanaren erantzulea da, eta lana burutzeko erabili dituen beste egileen obrekiko begirunea erakutsi behar du. Ikerketak egiterakoan, zure gain hartuko dituzu honako erantzukizunak: zure lanak kalitate onekoak eta pertsonalak izango dira, kontuan hartuko dituzu gai berberaz jardun duten beste egile batzuen lanak, eta erabilitako iturriak beti aipatuko dituzu.

## Jarduerak

### Zer egin behar duzu?

***Zenbat aldiz eskatu dizute institutuan lan bat egin behar duzula? Nola hartzen duzu egin beharra halakoetan, erronka bezala, edo oso gaizki hartzen duzu?***

Ikasturtean egiten dituzun lan horiek aukera aparta ematen dizute ikertzen ikasteko. Baina gai bati buruz ikertzeak helburu ezezagunera daraman bide bati ekitea ere suposatzen du. Urrats batzuk egin beharko dituzu nahitaez, bat bera haztu gabe.

### **Helmugara egoera onean iristeko, ondorengo puntuak kontuan hartu beharko dituzu:**

- Zure alde indartsuak eta hobetu beharrekoak ondo ezagutzea.
- Ikerketa on batek dituen aldiak zeintzuk diren argi eta garbi izatea.
- Gogoan izan beharko duzu ©; hau da, jakin behar duzu jabetza intelektuala zer den eta errespetatzeko zer egin zenezakeen.

# Zuk zer: ikertu, edo lana paretik kendu?

**Eskolako lanak egiten dituzunean, zein izaten da zure ikertzeko modua? Erantzun alboko testari. Zintzo eta zuzen. Azpimarratu «bai», eskuineko zutabeen ageri den esaldi batek ikertzeko orduan zuk izan ohi duzun jokamolderen bat adierazten badu, eta kontrakoa adierazten badu, berriz, azpimarratu«ez». Aurrera egingo duzu gure laguntzarekin: ez dakizuna ikasiko duzu, zailtasunak gaindituko dituzu.**



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

1. Irakasleak gai libre bati buruzko lan bat agintze didanean, gairik errazena aukeratu ohi dut. **bai**  
**ez**
2. Nire ideiak kontatzen dizkiet lagunei, irakasleei, gurasoei... **bai**  
**ez**
3. Lan baterako ideia bat bururatzen zaidanean ez diot inori kontatzen, ez dut nahi-eta inork kopiatzerik. **bai**  
**ez**
4. Saiatzen naiz informazio-iturri ugari kontsultatzen eta askotarikoak izan daitezen, nahiz eta denbora gehiago eman behar lana burutzeko. **bai**  
**ez**
5. Hiruzpalau dokumenturekin, aski izaten dut. **bai**  
**ez**
6. Informazioa bilatzeko, landu nahi dudan gaiaren alderdi desberdinak adierazten dituzten giltza-hitz batzuk erabiltzen ditut. **bai**  
**ez**
7. Beti idazten dut informazioak nondik jaso ditudan, gero, lanaren amaieran, bibliografia batean sartzeko. **bai**  
**ez**
8. Bizpahiru Internet helbide ditut, oso lagungarri zaizkidanak irakasgai desberdinetan agintzen dizkidaten lanak egiteko. **bai**  
**ez**
9. Badakit nire ikergaiari buruz dokumentu gehiago egon arren ez zaizkidala denak baliagarri gertatuko, batzuk kalitate gutxiakoak direlako, beste batzuk goi mailakoak direlako niretzat, etab. **bai**  
**ez**
10. Uste dut edozein dokumentu izan daitekeela ona lan bat egiteko, argitaratua izan bada, kalitatekoa den seinalea baita. **bai**  
**ez**
11. Nahiago dut dokumentu mordo bat bilatu eta gero gustatzen ez zaizkidanak baztertu. **bai**  
**ez**

12. Atsegin dut liburutegietara joatea, informazio interesgarria aurki daiteke eta. **bai**  
**ez**
- 
13. Sarritan ahaztu egiten zait nire informazio-iturriak aipatzea. **bai**  
**ez**
- 
14. Lanari berehala ekitea gustatzen zait, nahiz eta zertan ari naizen oso argi ez izan. **bai**  
**ez**
- 
15. Lana behin planifikatuz gero, zorrotz lotzen natzaio planari amaieraraino, gerta ala gerta. **bai**  
**ez**
- 
16. Lan bat egin behar dudanean, aldez aurretik planifikatzen dut, hautatu dudan gaiari nola ekin nahi diodan erabaki ondoren. **bai**  
**ez**
- 
17. Irakasleak ematen dizkigun aholkuak ez ahazteko eta uneoro kontuan hartzeko, idatzi egiten ditut. **bai**  
**ez**
- 
18. Nahiko malgu jokutzen dut eta lanaren edukia zein ikuspegia aldatzen joaten naiz, prozesuaren aldiak bete ahala, gauza berriak aurkitzen ditudan heinean. **bai**  
**ez**
- 
19. Lana idazteko, kontuan hartzen dut nork irakurriko duen. **bai**  
**ez**
- 
20. Lana idazten amaitzen dudanean, berehala entregatzen dut. **bai**  
**ez**
- 
21. Nire idazlanak behin baino gehiagotan begiratzen ditut, ongi adierazita ote dauden ikusteko eta azaldu ditudan ideiak berriro aztertzeko. **bai**  
**ez**
- 
22. Irakasleak esaten badigu ikerlanak hamar orrialde izan behar dituela, edonola betetzen ditut, nire lanak, berez, gutxiago behar baditu ere. **bai**  
**ez**

23. Hautatzen ditudan dokumentuetatik paragrafo osoak kopiatzen ditut, izugarri kostatzen baitzait edukiak neure hitzez adieraztea. **bai**  
**ez**
24. Gaiak eztabaidarako bidea ematen duenean, aurkitu ditudan testuen egileen iritzi berak defendatzen ditut, haien aldeko ez naizenean ere. **bai**  
**ez**
25. Ez dut inolako arazorik neure iritzia azaltzeko, ezta aurkitu ditudan informazio edo testuetakoen kontrakoa denean ere. **bai**  
**ez**
26. Nire lana zuzendurik jasotzen dudanean, zuzenketak arrapataka irakurri eta gero ahaztu egiten ditut. **bai**  
**ez**
27. Lana irakasleari eman ondoren, ez dut berriro begiratzen. **bai**  
**ez**
28. Atsegin dut irakasleak nire lana ebaluatzea eta zertan hobe dezakedan esatea. **bai**  
**ez**
29. Lana ahoz azaldu behar dudanean, beti prestatzen dut material osagarriren bat, entzuleek hobeto jaso dezaten esan nahi dudana. **bai**  
**ez**
30. Amorrua ematen dit besteei nire lana irakurtzea. **bai**  
**ez**
31. Interesatzen zait nire lana ezagutaraztea eta besteei hari buruz duten iritzia ematea. **bai**  
**ez**

#### ZER MODUZ ARITU ZARA?

##### **20 erantzun urdin baino gehiago asmatu baduzu:**

zorionak!, ganoraz ikertzen duzun seinale.

##### **Asmatutako erantzun urdinen kopurua 10 eta 20 artean badago:**

egin beharra paretik kenduta konforme gelditzen zara, baina askoz ere ikertzaile hobe zara izatez.

##### **10 erantzun urdin baino gutxiago asmatu baduzu:**

argi ibili!, egin beharra paretik kentzera mugatzen zara eta lan egiteko modua begiratu beharko zenuke.




# Urratsez urrats

gure proposamena

Egizu sartu-irten bat **esdelibro.es** web orriaren atal honetan, eta zure ikerlana zorrotza eta originala izan dadin egin beharko dituzun urratsen ikuspegi orokorra izango duzu.

**Balio** du,  
**ez du** balio



gure proposamena

Jakin nahi al duzu ikerlan on batean zer egin daitekeen eta zer ez? Sartu **esdelibro.es** orrian, bertan baitituzu aholkuak, zure ikerketan egile eskubideak errespeta ditzazun.



Lan-orri hau inprimatzeko: **esdelibro.es**





# Ikertzailearen **kontratua**

gure proposamena

(Izen-deiturak)

**nire**

**ikerlana egiteko ondorengo baldintzen jakitun, aukeratzen dut [esdelibro.es](http://esdelibro.es) orrian argitaratua izan dadin:**

- Ikerketa-prozesuaren hamaika urratsak jarraituko ditut eta urrats bakoitzean emaitza onak lortzen saiatuko naiz.
- Beti izango dut kontuan obra orok jabea duela eta jabeak eskubidea duela bere sortze-lana errespetatua izan dadin. Horrenbestez, errespetatu egingo ditut nire ikerlana egitean erabiliko ditudan pertsonen jatorrizko ideiak eta sortze-lanak.
- Hitz ematen dut erabiliko ditudala, gutxienez iturri mota hauek: entziklopedia inprimatu bat edo elektronikoa bat (CD batean edo Interneten), nire ikergaiari buruzko liburu bat, aldizkari edo egunkari bateko artikulua bat (nire gaiaz ezer argitaratu bada, behintzat), segurtasuna bermatuko duen Internet orri bat erakunde batena eta irudiekiko Internet orri bat.
- Hitz ematen dut liburutegi batera edo dokumentazio-zentro batera joango naizela, behar ditudan dokumentuetako batzuen bila.
- Nirea lan pertsonala izango da, eta bertan, beste batzuen ideiak eta neureak laburbildu, bateratu eta erkatuko ditut, eta zorrotz jokatuko dut neure ideiak eta besteenak zehazterakoan.
- Beti aipatuko ditut nire informazio- eta inspirazio-iturriak, oharren eta bibliografiaren bitartez.
- Aipuren bat hitzez hitz jasotzen dudana bakoitzean, aipu-marken edo kakotx artean jarriko ditut eta egilea aipatuko dut, nondik jaso dudana ere agertuko dudalarik.

**Onartzen ditut arestian azalduriko baldintzak eta ikerketak iraun bitartean lan-prozesuaren aldi guzti-guztiak bete ditzadan zainduko dut amaieraraino.**

.....n, .....ko .....ren .....n

Izp.: Ikertzailea



# Termometroa

eta gainera


**Zure© termometroaren  
hozberoa jakiteko, ilundu  
gradu bat baiezko erantzun  
bakoitzeko:**

Zure lana egiteko oinarritu zaren ideiak eta sortze-lanak aintzat hartu eta errespetatzen al dituzu?

Konturatzen al zara obra orok jabea duela?

Ba al dakizu zeu ere sortzaile zarela eta besteek zure sortze-lanak errespetatu behar dituztela?

Mundua aurrerarazi zuten ideia originalak zureganaino iritsi dira euskarri batzuen bidez; aintzat hartzen al dituzu euskarri horiek: liburuak, pelikulak, bideoak, aldizkariak, CD ROM-ak eta dokumentu mota guztiak oro har?



Konturatzen zara lanerako erabiltzen dituzun dokumentuen atzean beti dagoela sekulako ikasnahia eta ahalegina, dokumentua edozein motatakoa izanik ere: liburuak, ikus-entzunezko dokumentua, web orrialdea...?

Ezagutzen al dituzu plagiatu, kopiatu, antzeratu eta sortu artean dauden aldeak?

Benetan saiatzen zara zure ideiak eta besterenak bereizten?

Informazio-iturriak beti aipatzen al dituzu?



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

## 2. urratsa: ikergaia



### Irakaslearen giltzak

#### Helburuak

- Ikergai on bat aukeratzea.
- Gaiei buruz galderak egiten ikastea.

#### Lan-plangintza

	GURE PROPOSAMENA		ETA GAINERA	EBALUAKETA
	Arrastoari jarraitu!	Formula	Zer egin ohi duzuzuk?	Autoebaluazioa
	Jokoa	Jokoa	Testa	Jarraitubidea
<b>Jarduerak</b>	Gai bat bilatzeko jarraitu behar den prozedura ikasiko du ikasleak.	Ikasleak ikergaiei buruzko galderak egiten ikasiko du.	Ikergai bat aukeratzeko orduan zer nolako jarrera eta ohiturak dituen aztertuko du ikasleak.	Ikasleak gogoeta egingo du, urrats honetan egindako lanari buruz.
<b>Denbora</b>	Eskola-saio bat: 50 minutu	15 minutu	15 minutu	15 minutu
<b>Hezkuntza maila</b>	DBH-ko 2. zikloa Batxilergoa	DBH-ko 1. eta 2. zikloa	DBH-ko 1. eta 2. zikloa	Ziklo guztiak

#### Ohiko zailtasunak

Ikerketa lan bat egiteko eskatzen diegunean, ikasleek arazoak izaten dituzte gaia bere kabuz aukeratzeko; normalean gure laguntza behar izaten dute. Kasu bietan zailtasunak izan ohi dituzte ikerketaren norabidea markatuko duten galderak egiteko, eta, beraz, lanean aurrera egiteko. Unitate honetan teknika batzuk jartzen dizkiogu eskura irakasleari, lagun diezaion ikasleari, ikerlan bati ekiteko beharrezkoak diren gaitasunak garatzen.



## Abiatu beti zeure ideia batetik.

Nahiz eta hasieran gai egokirik ez aurkitu, oso garrantzitsua da lagunek aukeratutakoak errespetatzea, eta zure gaia bilatzeko beste aukera batzuk aztertzea. Inoren ideiak kopiatzea edo inorenez jabetzea ez da ikergai bat hautatzeko bide zuzena. Lanean hasteko, zeurea den ideia batetik abiatzen bazara, askoz hobeto sentituko zara. Horixe baita besteen ideiak errespetatzen ikasteko egin beharreko lehen urratsa.

## Jarduerak

### Zer egin behar duzu?

Ikasle bizitzan zehar irakasleek eskola-lanak aginduko dizkizute, eta zuk, lan horiek egiteko, informazio-iturri desberdinetatik dokumentazio osagarria jaso beharko duzu eta gero berrantolatu, zeure ukitu pertsonala emateko.

***Egia esan, interesatzen zaigun edozer gauza iker dezakegu; ikergai on bat aukeratzea, ordea, ez da hain kontu erraza.***

### Unitate honetan ondorengo puntuak landuko dituzu:

- Zure portaeraz jabetu: zer egin ohi duzu, lan baterako gaia aukeratu behar duzunean?
- Ikergai on bat aukeratu.
- Gaiei buruzko galderak egin.

# Arrastoari jarraitu!

## 1. Aztarnen atzean gordetzen dena aurkitu.

### 1. arrastoa

Lehentasun ordenaren arabera, idatz itzazu gehien interesatzen zaizkizun lau alor nagusiak. Adibideak: zientzia, literatura, artea, historia, musika, zinea, etab.



### 2. arrastoa

Gaurko egunkari bat eskuratu, eta idatzi albisteen artean deigarrienak gertatu zaizkizun lau gaien izenak. Adibide batzuk emate aldera: legez kanpoko immigrazioa, ozono geruzaren zuloa, azken orduko bidaia espazialak, etab.



### 3. arrastoa

Eskatu norbaiti (adiskide bati, gurasoei, irakasleei...) iradokitzeko zuri gaiak eta, entzun ahala, idazten joan.



### 4. arrastoa

Eskuratu entziklopedia bat eta zabaldu liburua hainbat bider aliritzira, agertzen diren gaiak idatzi eta gero, gehien erakartzen zaituzten lau gaien izenak azpimarratu.



### 5. arrastoa

Ideien zurrunbiloa egin, bakar-rean edo taldean, eta gehien gustatzen zaizkizun lau ideien izenak idatzi.



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

**Ideen zurrumbiloa**

Ideen zurrumbiloa da hamar minutuan burura etortzen zaizkizun ideia guztiak idaztea, bat bera ere bazter utzi gabe. Gero egokiak ez direnak alboratzen joan, harik eta gaia aukeratzen duzun arte.

- 2. Bost arrastoak azertu: Jarraitu dituzun arrastoetan agertzen al da gaiaren bat behin baino gehiagotan? Idatzi izenak lauki horretan.**

- 3. Zure gai posibleei galdeketa egin, alboko taulaz lagundurik.**

	1. GAIA	2. GAIA	3. GAIA
Ba al dakit ezer gaiari buruz?			
Erraz lortzen al da gaiaren inguruko informazioa?			
Gaiaren mugak argi ote ditut? Ez ote da, aukeran, zabalegia, edo murriztegia?			
Gehiegi pentsatu gabe, bururatzen al zaizkit hiruzpalau galdera gaiaren gainean?			
Gaiak ba al du gutxienez alderdi pare bat, nire jakin-mina pizten duena?			
Besteei ere interesgarria irudituko zaie?			
Atsegin zaidan gai bat al da?			

#### 4. Orain, erabaki beharra duzu!

Zein gaitara eraman zaituzte aztarnek?:

Zer sentitzen duzu gai horri buruz ikertu behar dizula pentsatzean?:

***Ideiak erakartzen bazaitu, ez dago zalantzarik: horixe duzu gaia! Orain lanari ekin, eta ez pentsatu gehiago ea beste gairen bat aukeratu behar ote zenuen. Saia zaitetz lana ahalik eta ondoen egiten.***

#### LAGUNTZA

##### Aholku batzuk

Gaia aukeratzekoan komeni da gauza bat kontuan hartzea: ez da zaila izan behar gai horren inguruko informazioa aurkitzea. Ziur ez bazau, laguntasuna eskatu liburuzainari. Garrantzizkoa da, baita ere, gaiari mugak ezartzen jakitea. «Afrikar kontinentea», adibide bat jartzearren, oso gai zabala da, zabalegia aukeran. Zehatz genezake, esate baterako, honela: «Afrikar kontinentearen erliebea». Edo, lekua gehiago mugatuz: «Afrikar kontinentearen hegoaldeko erliebea». Aukeratu dugun gaia denboran mugatzerik baldin badago, mugatu. Eman dezagun gaia «Migrazioak afrikar kontinentean» dela; bada, mende jakin batera muga genezake: «XX. mendeko migrazioak afrikar kontinentean». Denboraren eta lekuaren muga biak erabiliz, gehiago zehaztuko dugu gaia; adibidez: «XX. mendeko migrazioak afrikar kontinentearen iparraldean». Gure gaiaren izenburua litzateke, beraz: «XX. mendeko migrazioak Afrika iparraldean».





# Formula

gure proposamena

Ikertzeak kuxkuxean aritzea ere esan nahi du; hortaz, bada, aukeratu gai horietatik bat, pentsatu pixka bat zer dakizun gai horren inguruan, eta erakutsi zure jakinmina galderak eta galderak eginez, burura etortzen zaizkizun guztiak. Erabili formula hau, lagungarria izango zaizu eta **2Z 4N nZERG nERA**, hau da,

Aukeratu gai bat, eta formula erabili! Hona gai batzuen iradokizuna:

Orain, saiatu **2Z 4N nZERG nERA** formula aplikatzen zure ikergaiari eta idatzi galderak lauki honetan:



Lan-orri hau inprimatzeko: [esdelibro.es](http://esdelibro.es)

**2Z**

Zer/k  
Zenbat

**4N**

Nor/k  
Nola  
Noiz  
Non

**nZERG**

Zergatik  
Zergatik  
Zergatik...

**nERA**

Eraginak  
Eraginak  
Eraginak...

- Ilargirako bidaldiak.
- Itsasikarak.
- Lurraren berotzea.
- Legez kanpoko immigrazioa.
- Dopatzea kirolaren munduan.



# Zer egin ohi duzu zuk?

eta gainera

**Honezkero, sarri samar eskatuko zizuten ikerlan baterako gaia aukeratzeko. Zer egin ohi duzu zuk halakoetan? Adierazi taulan zure ohiko joerak.**

Lan baterako gaia aukeratu behar dudanean... BAI EZ

Lan baterako gaia aukeratu behar dudanean...	BAI	EZ
Lagunengana jotzen dut ideia bila	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gurasoei galdetzen diet	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gogoeta egiten dut, gaur egungo gaien artean interesatzen zaidanen bat aurkitzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Testuliburuaren aurkibidean begiratzen dut eta interesatzen zaidan gaia aukeratzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irakasleari galdetzen diot	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Eskola albo batera utzirik, atsegin zaizkidan gauzetan pentsatzen dut gaia aukeratzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Zerrendatxo bat egiten dut, gehiegi pentsatu gabe, eta gaietako bat aukeratzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Burura etortzen zaidan gaia aukeratzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>





# Ebaluazioa. Zer moduz?

Egiazko sortzaileak badaki lan batean garrantzizkoa ez dela azken emaitza bakarrik, baizik eta lanaren bilakaera bera ororen gainetik. Izan ere, ikertzaile onak bidean zehar erabili behar izaten du sormena, suertatzen zaizkion eragozpenak gertatu ahala gainditzeko: gauzak bat-batean egiteko gaitasuna; jatorri desberdineko kontzeptuak erlazionatzeko gaitasuna, alegia, kontzeptu berriak esperientziaz jasotakoekin edo jakituriaren beste bide batzuetatik ezagututakoekin lotzea; frustrazioa pairamenez eramateko gaitasuna, etab. Horregatik proposatzen dizugu ikerlanaren urrats guztiak banan-banan ebalua ditzazun; hartara datu berriak lortuko dituzu, eta datu horiei esker lanean hobeto jarduten ikasiko duzu.

## Lanaren lehen urrats honen ebaluazioa egiteko, erantzun hurrengo galderrei, eta komentatu gero zure ondorioak taldekoekin:

### Ikergai on bat aukeratzeko estrategiak erabili ditut.

- Erraz egin al dut?
- Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_
- Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

### Ikasi dut gaien inguruko galderak egiten.

- Ohartu ote naiz gaiari buruz lehenagotik nekienaz?
- Hobeto ezagutzen ditut orain neure interesak?
- Konturatu naiz gai jakin batzuk aukeratzeak dakartzan abantailak edo zailtasunak?

### Saiatu naiz nire gaia originala izan dadin eta inoren ideiak osorik edo zatika ez kopiatzen?

Bai  Ez  Neurri batean  Zergatik? \_\_\_\_\_

### Idatzi zure ondorioak lauki honetan:

# 3. urratsa: plangintza



## Irakaslearen giltzak

### Helburuak

- Aukeratutako gaiaren ezaugarriak eta inguruabarrak zehaztea.
- Aurrekotik abiatuz, beharko den informazio motaz gogoeta egitea.
- Banakako lan bat edo talde-lan bat antolatzea.

### Lan-plangintza

	GURE PROPOSAMENA		EBALUAZIOA
	Ondo pentsatu, gero!	Plangintza egin	Autoebaluazioa
	Jarraibidea	Txostena eta praktika	Jarraibidea
<b>Jarduerak</b>	Ikasleak banakako edo taldeko lanaren ezaugarri guztiak eta nondik-norakoak zehazten ditu.	Ikasleak, fitxa bat erabiliz, ikerketan egin beharreko zereginen plangintza egiten du.	Ikasleak gogoeta egiten du, urrats honetan egindako lanari buruz.
<b>Denbora</b>	30 minutu	30 minutu	15 minutu
<b>Hezkuntza maila</b>	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak

### Ohiko zailtasunak

Ohartzen gara ikasleak zailtasunak izan ohi dituztela beren eskola-lanak antolatzerakoan, eta zer esanik ez ikerketa baten prozesuari aurre egin behar diotenean, halakoetan, jarduera bakoitza sekuentzia zehatz baten arabera egin behar izaten baita. Banakako lan bat antolatzea nekeza izan daiteke, baina askoz gaitzagoa da ikasle-talde txiki baten lana koordinatzea; horregatik komeni da ikasleak egoera bietan, bakarrean zein taldean, jarduteko estrategiak ikastea. Garrantzizkoa da, baita ere, ikasleak jakitea bere lanari zein informazio mota egokitzen zaion, lana bera nolakoan den kontuan hartuta: definizioak, azalpenak, estatistikak, grafikoak, argazkiak, etab.



## Kontsultatzen dituzun dokumentuak errespetatu eta aintzat hartu.

Zure lanaren plangintza egiterakoan, pentsatu nola errespetatuko duzun uneoro jabetza intelektuala eta gogoan izan dokumentuekin zer egin daitekeen eta zer ez. Zure planean ez sartu egile eskubideak errespetatzen ez dituen asmorik; esate baterako, liburu bat fotokopiatzea horretarako baimenik ez duen leku batean. Baina egin dezakezu, adibidez, beste egile batzuen dokumentuen sintesi bat edota haien lanean oinarritu zeurea egiteko, baldin eta haien aipamena behar bezala egiten baduzu.

Kontsultatuko dituzun dokumentuen datuak nola bildu pentsatu behar duzu lana egiten ari zarela behin baino gehiagotan erabiliko baitituzu eta, bereziki, autoreen aipamena nola egin, beren ideiak jasotzen badituzu behinik behin.

## Jarduerak

### Zer egin behar duzu?

***Lana ondo antolatzen dutenetarikoak zara, edo dena nahaspilatzen zaion horietakoa?***

Sarritan, ikasterakoan edo eskola-lanak egiterakoan izan ohi dituzun zailtasunak lanaren antolaketa txarraren ondorio baino ez dira.

**Unitate honetan, estrategia batzuk ezagutuko dituzu, lana ondo antolatu ahal izateko:**

- Lortu nahi dituzun helburuak zehaztu.
- Lanak burutzeko epeak ezarri.
- Arian-arian burutuko dituzun zereginen jarraibidea markatu.

# Ondo pentsatu, gero!

**Esploratzaileak paraje ezezagunetan sartzea erabakitzen duenean, ondo prestatzen da aurretik, inguru hartako mapak eta planoak baliatuz, ez galtzeko. Irakasle batek lan bat egitea agintzen dizunean ere, antzeko zerbait gertatzen da. Bidean galtzeke zure helmugara irits zaitezten, behar-beharrezkoa duzu lanari ekin aurretik alderdi praktiko guztiak zehatz-mehatz adieraztea.**

**Zure lanaren ezaugarriak zehazteko, osatu fitxa hau zure asmoez.**



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

**Lanaren gaia** (behin-behineko izenburua eta izenburu osagarria):

Lana egingo dutenen **izen-deiturak**:

**Aurkezteko epea**:

**Zer informazio mota behar dut** (definizioak, datu solteak, azalpen-testuak, iritzi desberdinak, irudiak, soinuak, bideoak, etab.):

**Beharrezko baliabideak** (ordenagailua, sailkagailua, orriak, fitxak, plastikozko estalkiak, arkatza, azpimarrak egiteko arkatz markatzaileak, etab.):

**Zure mapa egiteko**, non kokatuta zauden eta nondik nora joan behar duzun jakiteko, erantzun halako galderei eta antzerakoei:

**Nola egin behar dut lana?**

Bakarrik  Taldean

**Zer lan klase aurkeztuko dut bukaeran?**

Horma-irudi bat  Ondorioei buruzko idazlan bat  
 Ahozko azalpen bat  Bildutako informazioen sintesi bat

Beste zerbait:

**Zer luzera izan behar du gutxi gorabehera?**

Orri kopurua, gutxienez  Orri kopurua, gehienez

**Sartu behar al dut grafikorik edo irudirik?**

Ez  Bai, ezinbestean  Beharrezkoa iruditzen bazait

**¿Norentzat dago pentsatuta**, nor izango da hartzailea?

Irakaslea  Ikaskideak  Edozein jende

**Noiz aurkeztu behar da?**

**Ahozko azalpen bat bada,**

**zenbat denbora iraungo du?**

**Institutuko liburutegia erabil dezakegu?**

Bai  Ez

Erantzuna baiezkoa bada, **zein ordutan?**

**Erabil ditzakegu beste liburutegi batzuk?**

Bai  Ez

**Interneten sartzerik ba al dugu?**

Bai  Ez



# Plangintza egin

gure proposamena

## 1. Banakako lanaren plangintza

Ondoko fitxa erabil dezakezu zure lana antolatzeko, baina ez ahaztu adieraztea zehatz-mehatz zeregin bakoitza noiz egingo duzun.



Lan-orri hau inprimatzeko: [esdelibro.es](http://esdelibro.es)

### ZURE IZENA

### BEHIN-BEHINEKO IZENBURUA

URRATSA	ZEREGINAK	DATAK
Ideiak	Irakaslearekin hitz egin lanaren antolaketaz	
	Giltza-hitzak hautatzeko, institutuko liburutegian entziklopediak eta hiztegiak kontsultatu	
	Diagrama bat egin gaiari buruz lehendik nekiena antolatzeko	
Iturriak	Eskola-liburutegiko katalogoetan bilatu	
	Auzoko liburutegian, katalogoetan bilatu	
	Interneten bilatu	
Dokumentuak	Dokumentuen hautaketa egin	
Informazioa	Idazlanak irakurri	
	Idazlanetatik jasotako informazioak laburbildu	
	Dokumentuetako datuen fitxak egin, behar izanez gero eskura izateko, edo lanaren amaieran iturriak aipatzeko	
Gidoia	Jasotako informazioaz, diagrama osatu	
	Amaierako txostenaren gidioa egin, eta adierazi bertan lanaren atal desberdinak	
Aipuak eta bibliografia	Oharrak antolatu txostenaren atalen arabera	
	Erabilitako bibliografiaren zerrenda egin	
Txostena	Erabaki zein lan klase aurkeztuko duzun: idazlana, horma-irudia, ahozko azalpena...	
	Lanaren zirriborroa idatzi	
	Zirriborroa aztertu eta zuzendu	
	Lana garbira pasatu	
	Azken orraztua eman lanari, egiaztapen-zerrenda batez lagundurik	
	Lana aurkeztu	
Interneten argitaratu	Nire ikerlana esdelibro.es orrialdean argitaratu	

## 2. Talde-lanaren plangintza

Ondoko fitxa erabil dezakezu, zuen lana antolatzeko; «Izena» dioen lekuetan zure lankideen izenak idatzi. Zuen kasuan, lana banatu beharko duzue, idatzi zeregin bakoitza nork egingo duen eta zeintzuk denon artean egingo dituzuen.



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

BEHIN-BEHINEKO IZENBURUA					
URRA-TSA	ZEREGINAK	1. IZENA	2. IZENA	3. IZENA	DATAK
Ideiak	Irakaslearekin hitz egin lanaren antolaketaz				
	Giltza-hitzak hautatzeko, institutuko liburutegian entziklopediak eta hiztegiak kontsultatu				
	Diagrama bat egin gaiari buruz lehendik nekiena antolatzeko				
Iturriak	Eskola-liburutegiko katalogoetan bilatu				
	Auzoko liburutegian, katalogoetan bilatu				
	Interneten bilatu				
Dokumen- tuak	Dokumentuen hautaketa egin				
Informazioa	Idazlanak irakurri				
	Idazlanetatik jasotako informazioak laburbildu				
	Dokumentuetako datuen fitxak egin, behar izanez gero eskura izateko, edo lanaren amaieran iturriak aipatzeko				
Gidoia	Jasotako informazioaz, diagrama osatu				
	Amaierako txostenaren gidoia egin, eta adierazi bertan lanaren atal desberdinak				
Aipuak eta bibliografia	Oharrak antolatu txostenaren atalen arabera				
	Erabilitako bibliografiaren zerrenda egin				
Txostena	Erabaki zein lan klase aurkeztuko duzun: idazlana, horma-irudia, ahozko azalpena...				
	Lanaren zirriborroa idatzi				
	Zirriborroa aztertu eta zuzendu				
	Lana garbira pasatu				
	Azken orraztua eman lanari, egiaz-tapen-zerrenda batez lagundurik				
Internet- en argitaratu	Lana aurkeztu				
	Nire ikerlana esdelibro.es orrialdean argitaratu				





# Ebaluazioa. Zer moduz?

**Ikasi duzuna gogoan, egin hurrengo galderak zeure buruari eta komentatu gero zure ondorioak taldekoekin:**

**Estrategiak erabili ditut, lanaren helburuak eta mugak argi eta garbi zehazteko.**

Erraz egin al dut?

Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_

Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Estrategia batzuk ikasi eta erabili ditut, banakako zein taldeko lan baten plangintza antolatzeko.**

Erraz egin al dut?

Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_

Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Lana antolatzerakoan, kontuan hartu dut dokumentuekin zer egin daitekeen eta zer ez, horregatik nire plangintzan ez dago egile eskubideak urratzen dituen inolako jarduerarik.**

Erraz egin al dut?

Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_

Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Orain, idatzi zure ondorioak lauki honetan:**

## 4. urratsa: **ideiak**



### **Irakaslearen giltzak**

#### **Helburuak**

- Aurretiazko ideiak eta zalantzak antzeman eta antolatzea, horiek markatuko baitute ikerketaren norabidea.
- Ikergaiari dagozkion giltza-hitzak antzematen eta doitzen jakitea.
- Diagrama mentalaren teknika erabiltzen ikastea, irudi bidez adierazteko aurreko guztia.
- Kontzeptu orokorrak eta zehatzak bereiztea: orokortasunetik zehaztasunera, eta alderantziz, jauzi egiten jakitea.

#### **Lan-plangintza**

	GURE PROPOSAMENA		ETA GAINERA		EBALUAZIOA
	Non daude informazioaren giltzak?	Diagrama bat egin	Matrioskak	Planetak eta sateliteak	Autoebaluazioa
<b>Jarduerak</b>	Jokoa	Dokumentua eta praktika	Jokoa	Jokoa	Jarraibidea
	Ikasleak giltza-hitzak adierazten ikasten du.	Ikasleak diagrama mentalaren teknika ikasten du.	Giltza-hitzak adierazten ikasi.	Giltza-hitzak adierazten ikasi.	Ikasleak gogoeta egiten du, urrats honetan egindako lanari buruz.
<b>Denbora</b>	Eskola-saioa bat: 50 minutu		Eskola-saioa bat: 50 minutu		15 minutu
<b>Hezkuntza maila</b>	DBH-ko 1. eta 2. zikloa	Ziklo guztiak	DBH-ko 1. zikloa	DBH-ko 1. zikloa	Ziklo guztiak

#### **Ohiko zailtasunak**

Ikergera aukeratu ondoren, ikasleek zailtasunak izan ohi dituzte gaiaz lehenagotik dakitena eta sortzen zaizkien galdera berriak antolatzeke, eta gauza bera gertatzen zaie informazioa artez bilatu ahal izateko behar dituzten giltza-hitzak zehazteko orduan. Informazio bila ari direnean ere, arazoak izaten dituzte giltza-hitzak unean uneko beharretara moldatzeko eta informazio esparrua zabalagoa edo mugatuagoa egiteko.



## Aintzat hartu zure ideiak.

Gogoratu sortze-lan bat egiten ari zarela. Originaltzat hartu, beraz, zure ideiak eta intuizioak, eta, aldi berean, konturatu zein ahalegin egin behar izan duten egileek erabiltzen dituzun dokumentuak sortzeko.

## Jarduerak

### Zer egin behar duzu?

***Zeuk uste baino gehiago dakizu!***

Lan baten gaiari aurre egin behar diozunean, ohikoena da zuk gai horri buruz ideia batzuk izatea, zeure esperientziagatik, edo zerbait irakurri duzulako, edo telebistan zerbait ikusi duzulako.

### **Unitate honetan ikasiko duzu:**

- Dakizuna laburbiltzen.
- Gaiari sakondu ahal izateko, ikertu nahi duzuna zehazten.
- Gaiaren mamia giltza-hitzetan adierazten.
- Kontzeptu orokorrak eta zehatzak bereizten.
- Zure ezaguerak eta zalantzak diagrama batean antolatzen.



# Non daude informazioaren giltzak?

Ikerlana egiteko, han eta hemen bilatu beharko duzu informazioa: dokumentu inprimatuetan, liburutegietako katalogoetan, internet orrietan, bilatzaileetan... Entziklopedia batean edo liburu baten aurkibidean, alfabetoaren hurrenkeraz baliatzen zara hitz bat bilatzeko; liburutegiko katalogo batean edo Interneteko bilatzaile batean, berriz, hitz bat edo hitz batzuk teklatzen dituzu. Horiexek dira giltza-hitzak. Demagun lan bat egin behar duzula liburu inprimatuaren historiaz; ba orduan, giltza-hitzak lirerateko liburu, inprenta eta historia.



Lan-orri hau inprimatzeko: [esdelibro.es](http://esdelibro.es)

**Giltza-hitzak.** *Garbi dago esanahia, dokumentuek gordetzen duen informazioaren atea zabaltzeko giltza dira.*

**Baina kontuz!** Kontsulta egin eta emaitzarik lortzen ez baduzu, beste giltza-hitz batzuk asmatu beharko dituzu. Ezer bururatzen ez bazaizu, begiratu hiztegi batean edo hiztegi entziklopediko batean, sinonimoak edo esanahi bertsuko hitzak aurkituko dituzu. Esate baterako, «migrazio» hitza begiratzen baduzu, familia bereko beste giltza-hitz batzuk aurkituko dituzu segur aski: «emigrazio», «transmigrazio»...; hiztegi entziklopediko batean «liburu» begiratu gero, ikerketarako bide berriak eskainiko dizkizuten terminoak aurki ditzakezu; hala nola, «argitaratu», «hitzaurre», «irakurle».

Hurrengo gaiei eta galderari dagozkien giltza-hitzak hizki-saldan daude. Aurki itzazu, eta gero laukia osatu:

GAIAK	GILTZA-HITZAK
Edateko ur eskasia Afrikan	Edateko ur, Afrika
Egiptoko zibilizazioa	Egipto, historia, zibilizazio
Europa osoa korritu al daiteke trenez?	Europa, burdinbide
Arrozaren laborantza Txinan	arropa, Txina, laborantza
Zergatik dago lehortearen Espainian?	lehorte, Espainia
Bidaia al daiteke Martera?	bidaiak, Marte, esplorazio espaziala

B	U	R	D	I	N	B	I	D	E	I	A
I	H	N	U	Z	T	Z	E	S	R	M	L
A	K	F	E	U	R	O	P	A	P	E	A
R	I	T	G	N	D	J	E	L	B	N	I
E	T	H	I	S	T	O	R	I	A	L	Z
S	O	R	P	E	P	T	A	K	Z	I	A
E	H	U	T	R	T	E	D	I	B	F	P
S	D	X	O	G	O	R	L	I	I	K	S
P	E	A	U	T	K	B	L	O	D	A	E
N	U	D	T	J	M	I	X	L	A	S	O
A	H	N	A	E	Z	K	S	T	I	D	I
I	L	B	E	A	K	A	X	R	A	D	Z
N	D	I	Z	F	E	O	Z	R	K	D	A
I	O	I	O	R	T	K	U	E	A	Y	R
A	O	J	R	I	X	N	O	R	R	I	O
P	U	E	R	S	H	I	N	U	A	O	L
E	T	R	A	M	R	O	I	T	R	M	P
U	H	T	B	E	F	P	D	I	G	A	S
L	A	B	O	R	A	N	T	Z	A	K	E

Orain zure txanda da: saiatu ikergaiaren giltza-hitzak bilatzen eta idatzi hemen.

Nire ikergaia:

Giltza-hitzak:

# Diagrama bat egin

Diagramak oso praktikoak dira, gai bati buruz dakizuna eta jakin nahi duzuna laburbiltzeko. Hasteko, egin ezazu oinarrizko diagrama bat, eta adierazi bertan gaiaz lehendik dituzun ezagupenak eta argitu nahi dituzun galderak.

Zure diagrama egiteko, hor dituzu jarraitu beharreko urratsak.

## a. Pentsatu zer dakizun gaiaz eta zer jakin nahi duzun.

Diagramen abiapuntuak bi izan ohi dira nagusiki: gai konkretu bati buruz aurretik ezagutzen duguna, eta gai horren inguruan sakonki ezagutu nahi duguna.

Hori guztia antolatzeko, taula honen antzeko bat egin dezakezu:

Zer dakit nik gai honetaz?	Giltza-hitzak
Zer jakin nahi dut?	Giltza-hitzak

## Adibidea

### GAIA: Liburua

Zer dakit gai honetaz?	Giltza-hitzak
Badakit zer itxura duen, eta nola antolatzen den	Liburua, orriak, azala, orrialdeak, kapituluak, paragrafoak, aurkibidea, sarrera, amaiera, inprenta, argitaletxe, liburu-denda, ikasketak, aisialdia.
Egile bat baino gehiago izan ditzakete	
Argitaletxeetan ekoizten dira	
Inprimategietan inprimatzen dira	
Liburu-dendetan saltzen dira	
Erabiltzen dira gauzak ikasteko, denbora-pasarako...	
Zer jakin nahi dut?	Giltza-hitzak
Nork asmatu zituen liburuak? Noiz? Zergatik?	Asmakuntza, liburua, inprenta, erreproduktzioa, lanbidea, sormen-lana, argitalpena, lanbidea, mundua, Espainia.
Inprenta garai berean asmatu al zen?	
Inprenta nork asmatu zuen?	
Liburuen kopiak egiteko zenbat era daude?	
Zer egin behar izaten du idazleak bere liburua jendearen eskuetara iristeko?	
Zenbat liburu argitaratzen dira urtero-urtero munduan? Zenbat Espainian?	



Lan-orri hau inprimatzeko: [esdelibro.es](http://esdelibro.es)

**Diagrama bat egiteko, jarraitu urrats hauek:**

- Orriaren erdian, gai nagusia edo gaiaren izenburua idatzi, zirkulu baten barruan.
- Zirkulu horretatik irtenarazi marrak edozein norabidetan, gai nagusiarekin zerikusia duten azpigaiak adierazteko; zenbat azpigai hainbat marra. Marra bakoitzaren azpian edo gainean, idatzi azpigaiaren edukia islatzen duen giltza-hitza.
- Marra nagusi horietatik bigarren mailako marra batzuk irten daitezke, bigarren mailako ideiak islatzeko alajaina. Eta bigarren mailako marra horiek ere adar txikiagotan zabal daitezke, beste ideia edo kontzeptu batzuk gehitzeko.
- Diagrama ez da berehalakoan egiten; behin-betikora iristeko, askotan moldatu behar izaten da, guztiz osatzen den arte. Baina hori arian-arian egiten da.


**b. Antolatu zure ezaguerak eta galderak diagrama batean.**

Zure ideiak taula batean adierazi badituzu, orain has zaitezke horiek guztiak diagrama batean irudikatzen.

*Dagoeneko zure diagrama egiteko gai zara. Dena den, lanean hasi baino lehen, lagungarria egingo zaizu beharbada beste diagrama hau begiratzea; aurreko adibidearen giltza-hitzak erabiliz osatu dugu:*

**Adibidea**

**GAIA: Liburua**







# Matrioskak

eta gainera

**Kontsulta bat egin dugu Interneten; gure giltza-hitza «kirolak» izan da. Eta emaitza, beldurgarria: hainbat milioi dokumentu daude! Gaia gehiago mugatu beste erremediorik ez dugu. Kasu honetan, adibidez, kirol guztien artetik kirol jakin bat aukera dezakegu giltza-hitza bezala, eta gure kontsulta zehatzagoa izango da hartara. Saia zaitetz ondoko gai orokor horiek konkretuago egiten, gaiari dagozkion giltza-hitza zehatzagoak bilatuz.**



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

## Adibidez: UR KIROLAK:

waterpoloa, uretako eskia, itsaspekaritza, bela...

Jarraitu zuk orain.

## GARRAIOBIDEAK:

## ERLIJIOAK:

## UGAZTUNAK:

## KOMUNIKABIDEAK:

## MITOLOGIA:

## ARTEA:



# Planetak eta sateliteak

eta gainera

A zer saltsa, giltza-hitzak direla eta ez direla! Kontua da liburutegiko katalogoan txilar-eztiari buruz libururik ote zegoen begira ibili garela eta ez dugula bat ere aurkitu.

Liburuzainak esan digu gerta daitekeela dokumenturik ez aurkitzea, aukeratu dugun giltza-hitza oso-oso zehatza baldin bada. Arazoa konpontzeko, giltza-hitz hori gai orokorrago baten barruan kokatu eta berriro saiatu beharko genukeela. Eta orduan, ezti hitza kontsultatu dugu. Bilduko al dituzu hitz talde horiek kontzeptu orokorrago baten inguruan, sateliteak beren planetaren inguruan bezala?

Adibidez

Eulia, matxinsaltoa, tximeleta, kakalardoa, kilkerra:

INTSEKTUAK

Orain, jarraitu zuk

Laranja, limoia, pomeloa, lima, mandarina:

Dominoa, damak, xakea, kartak, partxisa:

Ikusmena, entzumena, ukimena, dastamena, usaimena:

Izterrezurra, besahezurra, kaskezurra, lepauztaia:

Euria, antizikloia, enbata, hozberoa, haizea, behe presioa:

Garuntxoa, orno muina, nerbioak, garuna, bizkarrezur erraboila, hipofisia:





# Ebaluazioa. Zer moduz?

**Ikasi duzuna gogoan, egin hurrengo galderak zeure buruari eta komentatu gero zure ondorioak taldekoekin:**

**Ikasi dut nire ikergaia definitzen duten giltza-hitzak zehazten.**

- Erraz egin al dut?  
Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_  
Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Gai izan naiz nire ikergaiaren diagrama egiten hasteko.**

- Erraz egin al dut?  
Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_  
Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Orain, idatzi zure ondorioak lauki honetan:**

# 5. urratsa: iturriak



## Irakaslearen giltzak

### Helburuak

- Ikerketa baterako informazioa bilatzerakoan, iturri egokienak zeintzuk ote diren aztertzea.
- Liburutegiak (eta hemerrotekak, bideotekak, mediatekak) eta bertako lan-tresnak ezagutzea: sailkapen mota desberdinak, katalogoetan bilatzea, dokumentuak aurkitzeko katalogo-zenbakia erabiltzea, erregistro bibliografikoak interpretatzea.
- Interneten bilatzaileak hobeto erabiltzen ikastea.
- Aurkitutako dokumentuen datuak biltzea.

### Lan-plangintza

	GURE PROPOSAMENA			ETA GAINERA	EBALUAZIOA
	Iturriak	Liburutegi batera joan	Bilaka eta bilaka	Zer egin ohi duzu zuk?	Autoebaluazioa
	Galdeketa	Praktika	Txostena eta praktika	Galdeketa	Jarraibidea
<b>Jarduerak</b>	Bere ikerlanerako zein iturri mota diren egokiak aztertzen du ikasleak.	Liburutegi batek eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzen ditu ikasleak, baina lekuan bertan, liburutegi publiko batean edo eskolakoan.	Interneteko bilatzaile baten bidez, ikasleak bilaketa aurreratua ezagutu eta erabili egingo du.	Ikasleak gogoeta egiten du, informazioa bilatzerakoan dituen ohiturei buruz.	Ikasleak gogoeta egiten du, urrats honetan egindako lanari buruz.
<b>Denbora</b>	20 minutu	Goiz edo arratsalde oso bat, gutxienez	50 minutu	20 minutu	15 minutu
<b>Hezkuntza maila</b>	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak	DBH-ko 1. eta 2. zikloa	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak

## Ohiko zailtasunak

Prozesuaren aldi honetan gure ikasleen oztopo nagusia izan ohi da informazio-iturriak behar bezala ez ezagutzea, eta okerren ezagutzen dituztenak dira, hain justu, dokumentazioa modu eraginkorrean aurkitu ahal izateko bereziki eraturik dauden edo oinarrizko erremintak eskaintzen dituzten iturriak: liburutegiak, hemerrotekak, bideotekak, etab. Ikasleak ez dira oso ongi moldatzen informazio-gune horietan, eta sarritan apalategietan begiratzen hasten dira zuzenean, ez baitute ezagutzen sailkapen sistemen eta katalogoen egitura ez erabilgarritasuna ere.

Gainera, jende gehienak uste du behar den edozein informazio aurki daitekeela Interneten. Ikasleek, ordea, Interneten zerbait bilatzen dutenean, oso modu sinplean egiten dute; alegia, emaitza gehiegi lortzen dutela gauza onerako. Ez baitituzte bilatzaileak ganoraz ezagutzen: ez katalogoak zertarako diren, ez zein egitura duten, ez eta emaitza zehatzak lortzeko bilaketa aurreratua dutenik ere. Ezer gutxi dakite.

## Kopiatu, fotokopiatu, ebaki eta itsatsi, baina neurriz.

Bere garaian autoreek sortu zituztelako dago horrenbeste dokumentu desberdin liburutegietan eta aldizkaritegietan. Liburutegi batean dokumentu bat maileguan uzten badizute, errespetatu beti egilearen eskubideak. Fotokopiak egin behar badituzu, egileen eta editoreen baimena duten lekuetan egin. Gauza bera gertatzen da Internetekin: dokumentu bat deskargatzea edo testu bat ebaki eta itsastea erraza izateak ez du esan nahi edozein modutan egin daitekeenik. Dokumentu orok sortzailea du, eta autoreak eskubidea du bere sorkuntza errespetatua izan dadin. Web orrietan agertu ohi diren egile-eskubideen erreserba-oharrak irakurri. Dokumentuak aurkitu ahala, joan datuak jasotzen, gero informazio horiek erabiltzen badituzu haien aipamena egin ahal izateko.



## Jarduerak

### Zer egin behar duzu?

***Ba al dakizu nola lortu lanerako behar duzun informazioa?***

#### **Unitate honetan ikasiko duzu:**

- Informazio-iturri desberdinak erabiltzen: pertsonak, dokumentu idatziak, ikus-entzunezkoak...
- Iturri egokienak hautatzen.
- Liburutegiak eta Internet egoki erabiltzen.
- Bilaturiko dokumentuen oinarritzko datuak jasotzen.

Gogoratu nahi dizugu Ikertzailearen Kontratuan hitz eman zenuela iturri mota hauek erabiliko zenituela gutxienez: entziklopedia inprimatu bat edo elektronikoko bat (CD batean edo Interneten), zure ikergaiari buruzko liburu bat, aldizkari edo egunkari bateko artikulua bat (zure gaiaz ezer argitaratu bada behintzat), segurtasuna bermatuko duen Internet orri bat erakunde batena, eta irudiekiko Internet orri bat (zure ikergairako egokia balitz behinik behin).

# Iturriak

gure proposamena

Gogoeta egin, gaia ikertzeko beharko duzun informazioaz, eta pentsatu zeintzuk diren iturri egokienak zure ikerlanerako.

	Oso garrantzitsua	Garrantzizkoa	Garrantzirik apenas
Familia			
Adiskideak			
Irakasleak			
Inkestak			
Elkarrizketak			
Behaketa			
Saiakuntzak			
Liburutegiak			
Entziklopediak			
Liburuak			
Hiztegiak			
Internet			
Egunkariak			
Aldizkariak			
Irratia			
Telebista			

Zein iturri erabili behar duzu?:



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**



# Liburutegi batera joan

gure proposamena

Ikerketa agindu bezala egiteko, liburutegi batera joan beharko duzu. Ezagutu liburutegia barrutik, gunez gune joan; galdetu zer sailkapen sistema duten; katalogoak nola erabiltzen diren, zer egin behar duzun liburuak eta gainerako dokumentuak aurkitzeko, etab.

a. Begiratu katalogoan zer dokumentu komeni zaizun kontsultatzea zure ikerlana egiteko. Zure gaiaren giltzaitzak erabili horretarako.

b. Joan idazten zure ustez aproposak izan daitezkeen dokumentuen datuak.

### Lanaren behin-behineko izenburua:

### Behar dudan informazio mota

(egin behar duzun lanaren arabera: definizioak, datu solteak, iritzi desberdinak, irudiak, etab.):

### Niretzat aproposak izan daitezkeen obrak:

Egilea:

Izenburua:

Kokapen-kodea:

Egilea:

Izenburua:

Kokapen-kodea:

Egilea:

Izenburua:

Kokapen-kodea:

Egilea:

Izenburua:

Kokapen-kodea:





**Liburutegi batean, dokumentu guztiak antolatuta egon ohi dira. Ber-  
tan, hiru lanabes dituzu erabilgarri, edozein dokumentu non dagoen  
jakiteko: sailkapen sistema, katalogoak eta kokapen-kodea.**

**Sailkapen sistemak** adierazten du liburuak apalategietan nola antolatu-  
ta dauden. Normalena izaten da gai bati buruzko liburuak apalategi berean  
egotea denak. Liburutegi gehienetan liburuak sailkatzeko erabiltzen duten  
sistema edo plana Sailkapen Hamartar Unibertsala (SHU) delakoa da, zeinak  
hamar sail orokorretan banatzen baitu jakintza:

<b>0</b> OROTARIKOAK (hiztegiak, entziklopediak...)	<b>5</b> ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURA ZIENTZIAK
<b>1</b> FILOSOFIA - PSIKOLOGIA	<b>6</b> JAKINTZA APLIKATUAK
<b>2</b> ERLIJIOA - MITOLOGIA	<b>7</b> ARTEA - KIROLAK
<b>3</b> GIZARTE ZIENTZIAK	<b>8</b> HIZKUNTZA - LITERATURA
<b>4</b> (Sail hau hutsik)	<b>9</b> GEOGRAFIA - BIOGRAFIA - HISTORIA

Eta, aldi berean, horietako bakoitza beste sail batzuetan banatzen da. Hamar  
sail edo gai orokorrak zifra bakarrez zehazten dira, 0tik 9ra bitarteko zenbaki  
batez; horien azpisailak, aldiz, bi zifrako zenbaki batez.

**Katalogoak** fitxa multzoak eta multzoak dira; fitxetan liburuzainek liburutegian  
dagoen dokumentu ororen oinarriko datuak jasotzen dituzte: egilearen izen-  
deiturak; non argitaratu den, argitaratzailea nor den, zein urtetan argitaratu den;  
ezaugarri fisikoak –zenbat orrialde, zenbat irudi...–; bilduma; ohar bibliografikoak;  
ISBN –liburuaren identifikazio-zenbakia–; eta liburuaren gaia. Gaur egunean,  
liburutegi askotan bi motatako katalogoak daude: eskuzkoa eta automatizatua.  
Lehendabiziko kasuan, norberak aztertzen ditu fitxak, fisikoki, alegia, bertan  
ikusi eta haztatuz; automatizatuan, aldiz, liburutegian egin daitezke kontsultak  
bertako ordenagailu bat erabiliz, edo beste edozein ordenagailutatik, katalogoa  
Interneten eskuragarri badago.

Hainbat erataria bila daiteke dokumentu bat katalogoan. Dokumentua ezagutzen  
baduzu, ekin katalogoan bilatzeari egilearen edo izenburuaren bidetik. Baina nahi  
duzuna gai baten inguruan zer dokumentu dauden jakitea baldin bada, orduan  
hobe duzu kontsulta egiteko gaiaren edo deskribatzailearen bidetik hartzea,  
eta ikergairako hautatu dituzun giltza-hitzak erabiltzea. Gainera, katalogoek  
beren giltza-hitzen zerrenda propioa dute, deskribatzaile –deskriptorea– edo gai  
zerrenda deitua, non dokumentu bakoitzaren gaia agertzen den. Zerrenda horri  
esker, bilaketako hitzak gehiago doitu ahal izango dituzu. Eta behar bada, hango  
sinonimoak eta gaiari loturiko beste berba batzuk ikusita, zure giltza-hitzen  
zerrenda polito jantziko duzu.

**Kokapen-kodea** (signatura). Izenak berak dio, kode bat da; liburutegiko  
dokumentu guztiek dute bat, liburuzainek ezarria, dokumentu bakoitza non  
dagoen jakiteko. Kanpoaldean dago, liburuaren bizkarrean itsatsita; lauki  
iturako etiketa bat da, eta gazteleraz *tejuelo* esaten zaio.

Kokapen-kodea idazteko zenbakiak eta hizkiak erabili ohi dira:

- Sailkapen Hamartar Unibertsalaren zenbakia,
- egilearen deituraren lehen hiru hizkiak, handiz,
- izenburuaren hasierako hiru letrak –artikulurik gabe–, txikiz.

Apalategietan, liburuak jartzen dira, lehenengo, sailkapen-zenbakiaren  
edota literatura generoaren arabera; eta gero, zenbaki horren segida ba-  
rruan, egilearen lehen hiru letrak hartu eta hurrenkera alfabetikoa jarraituta.



# Bilaka **eta** bilaka

gure proposamena

**Interneteko bilatzailearen bat erabili, zure ikerlanerako informazioa lortzeko.**

**Interneteko bilatzaileak programa batzuk dira, guk nahi ditugun gaiei buruzko orrialdeak bilatzen dituztenak.**

**Bilatzeke bi era ditugu aukeran:**

- **Bilaketa simplea:**  
giltza-hitzak idazten ditugu bakarrik, beste baldintzarik ezarri gabe.
- **Bilaketa aurreratua:**  
emaitza zehatza helburu, hainbat baldintza ezar daiteke bilaketa murrizteko.



Lan-orri hau inprimatzeko: [esdelibro.es](http://esdelibro.es)

Interneteko bilaketaren emaitzak jasotzeko, eta orri interesgarriak zure arakatzaillearen gogokoenei gehitzeko, halako fitxa bat erabil dezakezu:

### Lanaren behin-behineko izenburua:

**Behar duzun informazio mota** (egin behar duzun lanaren arabera: definizioak, datu solteak, iritzi desberdinak, irudiak, etab.):

### Niretzat aproposak izan daitezkeen web orriak:

Orriaren URL helbidea:

Egilearen edo erakunde arduradunaren izena:

Orriaren URL helbidea:

Egilearen edo erakunde arduradunaren izena:

Orriaren URL helbidea:

Egilearen edo erakunde arduradunaren izena:

Orriaren URL helbidea:

Egilearen edo erakunde arduradunaren izena:

Google-n bilaketa aurreratuan begiratzen baduzu, fitxa bat ikusiko duzu, bilatu beharreko dokumentuek zein baldintza bete behar dituzten ezartzeko. Bilaketa are zehatzagoa egin dezazun, baldintzetako batzuk azpimarratu dizkizugu.

**Aurkeztu emaitzak:**

hitz hauek guztiak barne direla  
esaldi zehatz hau barne dela  
hitz hauetako edozein barne dela  
hitz hauek gabe

**Hizkuntza:** gaztelaniaz

**Erakutsi tarte honetan eguneratutako orriak:**

edonoiz  
azken 3 hilabetetan  
azken 6 hilabetetan  
azken urtean

**Aukeratu bilaketa-hitzen kokapena:**

orrian edonon  
orriaren izenburuan  
orriaren testuan  
orriaren URL helbidean  
orrirako esteketan



# Zer egin ohi duzu zuk?

eta gainera

Lau laguneko taldeak egin, eta alboko taula osatu: erantzuna baiezkoa denean, gurutze bat egin galderari dagokion laukitxoan.

	1 IZENA	2 IZENA	3 IZENA	4 IZENA	GUZ- TIRA
Joan ohi zara liburutegira gutxienez hilean behin?					
Joaten al zara liburutegira zure gustuko liburuak eta aldizkariak irakurtzera?					
Ikastera joaten zara?					
Eskolako lanak egiteko dokumentuak kontsultatzen joaten zara?					
Ba al duzu "mailegua etxeraino" zerbitzua erabiltzeko ohiturarik?					
Erabiltzen duzu Internet liburutegian?					
Parte hartzen duzu liburutegjak antolatzen dituen ekitaldietan?					

Talde bakoitzaren datuen batuketa egin eta komentatu gero emaitzak elkarrekin.

Liburutegiek eskaintzen dituzten zerbitzuak ondo ezagutzen dituzue?

Hango ahalbide guztiez baliatzen al zarete?

Merezi al du baliabide horiek sarriago erabiltzea?





# Ebaluazioa. Zer moduz?

**Ikasi duzuna gogoan, egin hurrengo galderak zeure buruari eta komentatu gero zure ondorioak taldekoekin:**

- Ongi pentsatu al dut zer informazio mota behar dudan eta informazio hori bilatzeko iturri egokienak zeintzuk diren?**

**Ikasi al dut liburutegiek eskaintzen dituzten baliabideak erabiltzen?:**

- sailkapen sistema,  
 katalogoetan bilatzen,  
 dokumentuak aurkitzeko kokapen-kodea erabiltzen,  
 erregistro bibliografikoen datuak interpretatzen.

- Ikasi al dut Interneten informazioa modu eraginkorragoan bilatzen?**

- Jaso al ditut aurkitutako dokumentu guztien datuak, gero, nire lanean erabiltzen ba-ditut, aipatu ahal izateko?**

**Orain, idatzi zure ondorioak lauki honetan:**

# 6. urratsa: dokumentuak



## Irakaslearen giltzak

### Helburuak

- Izaera desberdineko dokumentuen eta haien informazio-puntu aberatsen baliagarritasunaz jabetzea.
- Dokumentuak arakaten, baliagarriak ote diren konturatzen, eta ondo aukeratzen ikastea.
- Kontuan hartzea, aldez aurretik, dokumentu hautatuen egileak aipatzeko egin beharreko datu-bilketa.


### Lan-plangintza

	GURE PROPOSAMENA				EBALUAZIOA
	Zer egin ohi duzu zuk?	Dokumentuak arakatu	Dokumentuak hautatu	Datu bibliografikoak antolatu	Autoebaluazioa
	Galdeketa	Praktika	Galdeketa	Galdeketa	Jarraibidea
<b>Jarduerak</b>	Ikasleak informazioa bilatzeko dituen abildadeak aztertzen ditu.	Ikasleak dokumentuen funtsezko informazioa aurkitzen ikasten du.	Ikasleak aurkitutako informazioaren balioa aztertzen du.	Ikasleak bere datuak fitxetan antolatzen ikasten du.	Ikasleak gogoeta egiten du, urrats honetan egindako lanaz.
<b>Denbora</b>	15 minutu	Eskola-saio bat: 50 minutu	15 minutu	Eskola-saio bat: 50 minutu	15 minutu
<b>Hezkuntza maila</b>	DBH-ko 1. eta 2. zikloa	DBH-ko 1. eta 2. zikloa	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak

### Ohiko zailtasunak

Maiz, ikasleei ahaztu egiten zaie beren informazio-beharrak bete ditzaketen dokumentuak egon badaudela eta ugariak ez ezik era askotakoak direla. Ez dute gehiegi eskatzen, eta konforme geratzen dira eskura iristen zaizkien lehen dokumentu gutxi batzuekin.

Gainera ez dituzte estrategiak ezagutzen, dokumentu bat azkar-azkar arakatu eta edukia baliagarria ote zaien jakin ahal izateko. Oraingo aldian, beraz, dokumentuak hautatzeko estrategiak ikasi eta erabiltzea izango da funtsezkoena.



## Dokumentuak behar bezala identifikatu.

Lana egiteko oinarritu zaren dokumentuak aipatzeko, haien datuak beharko dituzu. Horregatik da hain garrantzizkoa, dokumentuak hautatzen ari garen honetan, identifikazio-datu guztiak jasotzen joatea, bibliografia osatzeko garaian haietaz baliatzeko.

## Jarduerak

### Zer egin behar duzu?

***Ba al dakizu dokumentuak hautatzen?***

#### **Unitate honetan egin behar duzuna:**

- Ikerketarako komenigarriak izango zaizkizun dokumentu motak aurkitu.
- Estrategia batzuk ikasi, benetan interesatzen zaizkizun dokumentuak hautatzeko.
- Dokumentuen datuak antolatzeko modurik eraginkorrena –fitxak erabiltzea alegia– ezagutu.

# Zer egin ohi duzu zuk?

**Dokumentu mota pila bat dago: kontsulta-liburuak, bestelako liburuak, egunkariak, aldizkariak, eskuliburuak, argibide-orriak, CD-ROMak, web orrialdeak, etab. Ikerketan zehar zure informazio-beharrak aldatzen joango direnez, dokumentuak behar bakoitzari egokitzen joan beharko duzu. Zer egiten duzu normalean, helburuen arabera hautatu dokumentuak, edo dokumentu berdinak erabiltzen dituzu beti? Zure informazio-beharrak egokien beteko dituen dokumentuak nolakoak izan behar duten jakiteko, erantzun ondoko galdeketari. Eskuineko zutabean dokumentu baliagarri bat baino gehiago aurki dezakezu.**



Lan-orri hau inprimatzeko: [esdelibro.es](http://esdelibro.es)

Zer egin ohi duzu...	Zein da dokumenturik egokiena?
1...definizio bat edo itzulpen bat aurkitzeko.	a) Hiztegi bat
	b) Liburu bat
	c) Atlas bat
2...datu zehatz bat aurkitzeko.	a) Atlas bat
	b) Entziklopedia bat
	c) Datu base bat
3...gai bati buruzko datu orokorrak eskuratzeko.	a) Datu base bat
	b) Entziklopedia bat
	c) Dokumental bat
4...gai bat sakonki ezagutzeko.	a) Hiztegi bat
	b) Liburu monografiko bat
	c) Web orrialde bat
5...leku bat mapan kokatzeko.	a) Web orrialde bat
	b) Atlas bat
	c) Egunkari bat
6...gaur egungo gai baten jarraipena egiteko.	a) Egunkari bat
	b) Fikziozko pelikula bat
	c) Irratsaio bat
7...gaur egungo gaiak sakonago ezagutzeko.	a) Irratsaio bat
	b) Telebista-kate informatibo bat
	c) Plano bat
8...kale baten, etxe baten, edo beste zerbaiten kokalekua zehazteko.	a) Plano bat
	b) Atlas bat
	c) Bidaldi-gida bat
9...erakunde, herrialde edo beste zerbaiti buruzko informazioa azkar lortzeko.	a) Liburu monografiko bat
	b) Argibide-eskuorri bat
	c) Liburu bat

## ZER MODUZ ARITU ZARA?

**Soluzioak begiratu eta zure erantzun zuzenen balorazioa egin**

1. a) - 2. b) eta c) - 3. b) eta c) - 4. b) eta c) - 5. b) - 6. a) eta c) - 7. a) eta b) - 8. a) - 9. b)

**Asmatu dituzun erantzunak 10 eta 14ren artean badaude:** Zorionak!, zure informazio-beharrak betetzeko dokumentu egokia aukeratzen dakizun seinale. Hala ere, unitate honek informazioa bilatzeko duzun trebezia zolitzen lagunduko dizu.

**Asmatu dituzun erantzunak 6 eta 9ren artean badaude** Erne ibili aurre-rantzean! Unitate honetako edukia lagungarriak izango zaizkizu, informazioari dagokionez, zure trebezia lantzeko.

**Asmatu dituzun erantzunak 0 eta 5ren artean badaude:** Aldatu lehenbai-lehen zure lan egiteko modua! Unitate honen laguntzaz, behar beste trebezia lortuko duzu, informazioari dagokionez.





# Dokumentuak arakatu

gure proposamena

**Dokumentuak arakatu. Zer esan nahi da horrekin? Bada, edozein dokumenturen aurrean, hari buruzko oinarrizko informazioa non aurkitu jakiteaz gain, begiz jotzea azkar-azkar; horiek dira informazio-puntu mamidunak. Hartara jakingo dugu, azaletik bada ere, zertaz ari den, testua osorik irakurtzeke. Erabili araketaren teknika, ikerlanerako hautatu dituzun dokumentuekin; miatu ondo, eta informazio-puntu mamidunak topatu.**



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

LAGUNTZA

## Informazio-puntu mamidunak

Dokumentu inprimatu orok ditu informazio-puntu mamidunak, oinarrizko informazioa biltzen duten lekuak. Hauek dira:

### Liburuetan:

- **Izenburua:** testuaren edukiaz dugun lehen argibidea.
- **Barruko azala:** edukiaren berri ematen digu labur-labur.
- **Aurkibidea:** edukiaren eskema orokorra.
- **Sarrera:** (hitzaurre edo aitzinsolasa) gaia aurkezteaz gain, batzuetan edukiaren egitura ere azaltzen zaigu: gaiaren alderdi edo atalak, kapituluak...
- **Amalera:** (konklusio edo gibel solasa) ideia nagusiak azaltzen ditu berriro eta testuaren funtsa laburbiltzen du.
- **Aurkibide alfabetikoa:** tratatzen diren gaiei buruzko giltza-hitzen zerrenda, eta horietako bakoitza liburuaren zein orritan aurkitu esaten digu.

### Testu barruan ere badira informazio-puntu mamidunak:

- **Paragrafo bakoitzaren hasierako eta amaierako esaldiak**, normalean paragrafoaren ideia nagusia sintetizatzen baitute.
- Letra lodietan, etzanetan, edo beste baliabide tipografikoren bat erabiliz bereizten diren hitzak.
- **Grafikoak, irudiak eta eskemak.**
- **Argazkiak** eta beren **epigrafeak.**

### Pentsako dokumentuetan hauek izan ohi dira informazio-puntu mamidunak:

- **Titularrak:** tituluak, aurretituluak eta azpigituluak.
- Albiste eta artikuluen **sarreratxoak.**
- **Laukiak.**
- **Aipu marken arteko esaldiak.**
- **Argazkiak** eta **argazki-oinak.**
- **Infografiak.**
- Albo-tartekiak edo **titulu txikiak**, informazio luzeak banatzeko erabiliak.
- **Informazio-iturriak.**

### Interneteko orrialdeetan, arestian aipatutakoez gainera, hauek dira informazio-puntu mamidunak:

- URLa edo orriaren helbidea.
- **Goiburua:** orriaren izena adierazten zaigu eta baita orriaren zein lekutan gauden ere.
- **Gorputza:** bertan daude testua, irudiak, etab.
- Oina: hainbat daturen berri ematen da bertan; orriaren erantzulea nor den, azkeneko aldiz noiz eguneratu den, helbide elektronikoa zein den, etab.
- **Loturak edo hiperestekak:** kolorez eta azpimarratz nabarmendutako hitz bat edo irudi bat, orriak beren artean lotzeko, orri batetik beste batera jauzi egiteko. Kontuz azpimarra horiekin, ez dira ideia garrantzitsuak bereizteko.
- **Markoak:** web orri batzuek dituzten gunereziak; beren informazio propioa eskaintzen dute, eta gu batetik bestera joan gaitzeko.
- **Web orriaren mapa:** aurkibidearen tankerakoa da, orriaren eduki guztiak islatzen dituen eskema bat.

# Dokumentuak hautatu

Dokumentuen alderdi batzuk aztertuko ditugu eta horrela jakingo dugu zein zaigun baliagarria eta zein ez, zein baztertuko dugun eta zein hautatuko dugun gure ikerlanean erabiltzeko. Aurkitu dituzun dokumentuak ondo aztertu eta, guztien artetik, hautatu benetan interesatzen zaizkizunak bakarrik.

## Galdetegia, dokumentuek balio ote duten jakiteko

### Erabili galdera sorta hau zure dokumentu guztiekin:

Dokumentu honek ba al du nire ikerlanari buruzko informaziorik? Bai  Ez

Informazioa eguneratuta al dago? Bai  Ez

Ulerterraza egiten zait? Bai  Ez

Ondo egokitzen al dira dokumentu honen luze-laburra eta ikerlana egiteko dudan denbora? Bai  Ez

Kalitate onekoa eta zorrotza al da egile honek edo iturri honek eskaintzen didan informazioa? Bai  Ez

### ONDORIOA:

Hautatu

Baztertu





# Datu bibliografikoak antolatu

gure proposamena

Zertarako dira fitxa bibliografikoak? Dokumentu askoren oinarrizko datuak ondo antolatuta edukitzeko: geuk emaniko zenbakia, izenburua, egilea, argitaletxea, etab. Zure ikerlanean erabiliko dituzun dokumentuak hautatu eta gero, haien datuak idatzi fitxa bibliografikoetan, eta adierazi kokapen-kodea eta zure zerrendan zenbatgarren dokumentua den ere. Orain, fitxa eredu batzuk erakutsiko dizkizugu; zure ikerketan erabili nahi izango dituzu agian.



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
[esdelibro.es](http://esdelibro.es)

## ENTZIKLOPEDIAK, HIZTEGIAK, ATLASAK

Zenbatgarren dokumentua	
Izenburua	
Argitaratze lekua	
Argitaletxea	
Urtea	
Zenbatgarren liburukia (lana zatika argitaratu bada)	
Orrialdeak	
Liburutegia	
Kokapen-kodea	

## LIBURUAK

Zenbatgarren dokumentua	
Egilea	
Izenburua	
Argitaratze lekua	
Argitaletxea	
Argitaratze urtea	
Kapitulu interesgarriak	
Orrialde interesgarriak	
Liburutegia	
Kokapen-kodea	
Kokapen-kodea	

## ALDIZKARIETAKO ARTIKULUAK

Zenbatgarren dokumentua	
Egilea	
Artikuluaren izenburua	
Aldizkariaren izena	
Argitaratze data	
Alearen zenbakia	
Artikuluaren agertzen den orria/k	
Liburutegia/hemeroteka	
Kokapen-kodea	

## Zure informazio-iturriak errespetatu.

Ikerketarako hautatu dituzun dokumentuak antolatzeko, bibliografia-fitxak baliatuko dituzu. Lanaren amaieran ere baliagarriak izango zaizkizu, ikerketan zehar erabili dituzun egileak eta dokumentuak zerrenda batean agertzeko. Horrela, oinarritzat hartu dituzun iturriak erakutsiko dituzu, eta baita egile eskubideak merezi dizun errespetua ere.

### PRENTSAKO TESTUAK

Zenbatgarren dokumentua	
Egilea	
Artikuluaren izenburua	
Egunkariaren izena	
Argitaratze data	
Testua agertzen den orria/k	
Liburutegia/hemeroteka	
Kokapen-kodea	

### BIDEOA

Zenbatgarren dokumentua	
Egilea	
Izenburua	
Argitaratze lekua	
Editorea	
Argitaratze urtea	
Iraupena	
Liburutegia/mediateka	
Kokapen-kodea	

### CD-ROM-A

Zenbatgarren dokumentua	
Egilea	
Izenburua	
Argitaratze lekua	
Editorea	
Argitaratze urtea	
Iraupena	
Liburutegia/mediateka	
Kokapen-kodea	

### WEB ORRIA

Zenbatgarren dokumentua	
Egilearen izena (eta nekez aurkitzen bada, orduan, gunearen erakunde arduradunaren izena)	
URL helbide osoa	
Orria eguneratu den azkeneko aldia	
Orrian kontsulta egin den eguna	



## Ebaluazioa. Zer moduz?

**Ikasi duzuna gogoan, egin hurrengo galderak zeure buruari eta komentatu gero zure ondorioak taldekoekin:**

- Konturatu al naiz zer hartu behar dudan kontuan nire ikerlanerako dokumentuen hautaketa egokia egiteko; hau da, benetan garrantzitsuak direnak aukeratzeko?
- Ikasi al dut dokumentu bakoitzaren fitxa bibliografikoa egiten, gero haien aipamena behar bezala egiteko, edo beharko banitu berehala aurkitzeko?

**Orain, idatzi zure ondorioak lauki honetan:**

# 7. urratsa: informazioa



## Irakaslearen giltzak

### Helburuak

- Irakurketa ulerterraza lortze aldera estrategiak erabiltzea, iritsi nahi diren helburuen araberakoak.
- Ikerlanaren helburuak lortzeko behar diren informazioak eta datuak jasotzea, teknika desberdinak erabiliz.
- Erabilitako informazio-iturri guztiak idaztea, gero haien aipamena egin ahal izateko eta, hartara, jabetza intelektualarekiko egileen eskubidea errespetatzeko.
- Idazlan desberdinak alderatu eta sintesia egitea, bertan informazioaren muina agertuko delarik.
- Dokumentu batean, egintzak eta iritziak bereiztea.

### Lan-plangintza

	GURE PROPOSAMENA			ETA GAINERA		EBALUAZIOA
	Irakurle zorrotza al zara?	Nire galderen erantzunak aurkitu	Aipatzeko, oharrak jaso lehenengo	Bi testu alderatu	Egintzak eta iritziak bereizi	Autoebaluazioa
	Praktika	Praktika	Praktika	Praktika	Praktika	Jarraitzea
<b>Jarduerak</b>	Ikasleak gogoeta egiten du irakurle gisa dituen ahalmenez eta arazoez.	Ikasleak kokapenaren teknika lantzen du testu batean.	Aipatuko dituen dokumentuen zatiak fitxetan antolatzen ikasten du ikasleak.	Ikasleak bi testu desberdin hartu eta sintesia eta testu bakarrean eraberritzeko teknika erabiltzen du.	Ikaslea irakurketa kritikoa trebatzen da eta, informazioak eta iritziak bereizi ondoren, iritzien balorazioa egiten du.	Ikasleak gogoeta egingo du, urrats honetan egindako lanari buruz.
<b>Denbora</b>	20 minutu	20 minutu	Eskola-saio bat: 50 minutu	15 minutu	Eskola-saio bat: 50 minutu	30 minutu
<b>Hezkuntza maila</b>	DBHko 2. maila eta batxilergoa	DBHko 1. eta 2. maila	Ziklo guztiak	DBHko 1. eta 2. zikloa	DBHko 2. zikloa eta batxilergoa	Ziklo guztiak

## Ohiko zailtasunak

Prozesuaren aldi honetan izaten diren eragozpenek zerikusi zuzena dute irakurketa eta idazketa-  
ren estrategia batzuk ez ezagutzearekin. Ikasleek testu bat irakurtzen dutenean, zailtasunak izan  
ohi dituzte garrantzizko informazioa ondo ulertzeko eta laburbiltzeko; egintzak eta iritziak bereiz-  
teko; eta aurkitu dituzten datuak antolatzeko. Hori guztia jakitea beharrezkoa da, behinik behin,  
datuok ikerlanean txertatu nahi badira egile eskubideak errespetatuz.

Horregatik, unitate honetan jarduera batzuk proposatzen dira: oinarrizko abildade batzuk ikasi  
eta praktika ditzala ikasleak, dokumentuen irakurketa sakona egin ahal izateko, informazioa ate-  
ratzen eta laburbiltzen jakiteko, eta ideia berriak lehenagotik zituenei gehitzeko.



## Beste egileak aipatu, beren lanen zatiak erreproduzitzen badituzu.

Normala da zure ikerlanetan beste ikertzaile batzuek argitaratu dituzten iritziez eta datuez baliatzea.

Idazlan zatiak erabil ditzakezu, baina begirunez jokatu duzu egileekin eta jabetza intelektualarekin. Idatzi beti, beraz, kontsultatzen duzun informazioa nondik datorren, gero zure lanean aipatu ahal izateko.

## Jarduerak

### Zer egin behar duzu?

***Ez zaizu inoiz gertatu, horrenbeste informazio eskuragarri ikusirik, datu-uholde horretan itoko zarela sentitzea?***

Uholde horretan ito ez zaitezen, erabili unitate honetan proposatzen dizkizugun estrategiak. Horiei esker ikasiko duzu, halaber, informazioaren hondo-hondoraino heltzen.

### Urrats honetan:

- Hautatu dituzun dokumentuetan, behar duzun informazioa non dagoen zehaztuko duzu.
- Egingo duzu dokumentuen irakurketa sakona eta zorrotza, ulertze arazorik gabea.
- Ikasiko duzu idazlan batean egintzak eta iritzia bereizten.
- Ikasiko duzu ikerketan zehar kontsultatzen ari zaren egileen aipuak fitxetan antolatzen.





# Irakurle zorrotza **al** zara?

## Erantzun alboko testari.

1. Dokumentu bat irakurtzen duzunean, kontuan hartzen al duzu idazlea?  
 a) Beti       b) Batzuetan       c) Inoiz ez
2. Dokumentua komunikabide batekoa bada, ohartzen al zara kazetariak bere informazio-iturriak aipatzen ote dituen?  
 a) Beti       b) Batzuetan       c) Inoiz ez
3. Dokumentuak gertaera historiko edo gaurkotasunezkoek ari direnean, saiatzen al zara gertaerok testuinguruan kokatzen (egilea, lekua, garaia, etab.)?  
 a) Beti       b) Batzuetan       c) Inoiz ez
4. Dokumentuak irakurtzen ari zarenean, pentsatzen al duzu zure ikuspuntua zein den eta ados zauden ala ez, bertan adierazten diren datuekin eta iritziekin?  
 a) Beti       b) Batzuetan       c) Inoiz ez
5. Bilatu ohi dituzu zure ikergaia beste ikuspuntu batzuetatik edo beste era batzuetan tratatzen duten dokumentuak?  
 a) Beti       b) Batzuetan       c) Inoiz ez
6. Dokumentu batean ideia jakin baten alde egiten bada, zu jabetzen al zara?  
 a) Beti       b) Batzuetan       c) Inoiz ez
7. Gai al zara dokumentu batean egileak komunikatu nahi duen asmoaz ohartzeko; adibidez, zerbait sinetsarazi nahi ote dizun, edo zerbait saldu?  
 a) Beti       b) Batzuetan       c) Inoiz ez
8. Testu batean arazo bat planteatzen bada, aise ohartzen al zara?  
 a) Beti       b) Batzuetan       c) Inoiz ez
9. Horrelako kasuetan, etortzen al zaizu burura arazo horiek nola konpon daitezkeen?  
 a) Beti       b) Batzuetan       c) Inoiz ez
10. Idazlanak irakurtzerakoan, jabetu al zara inoiz, irakurle gisa testuak zugar eragiten dituen emozioez eta sentipenez?  
 a) Beti       b) Batzuetan       c) Inoiz ez



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

**10 a) erantzun baldin badituzu:**

Zorionak! Badituzu-eta irakurketa kritikoa egiteko oinarrizko gaitasunak. Urrats honetan, gaitasun horiek landu ahal izango dituzu, sendotu, handitu.

**Zure a) erantzunen kopurua 5 eta 10 artekoa bada:**

Oraindik asko hobe dezakezu zure jarrera kritikoa, dokumentu bati aurre egiteko orduan. Egin urrats honetako jarduerak, eta jarrera kritikoagoa izatea lortuko duzu.

**Zure a) erantzunak 5 baino gutxiago badira:**

Erne! Ez zara ohartzen, nonbait, testuaren oinarrizko alderdi guztiez. Arretaz egin urrats honetan proposatzen dizkizugun jarduerak, eta irakurle kritikoa izateko gaitasuna hobetu eta sendotuko duzu.



# Nire galderen erantzunak aurkitu

gure proposamena

**Dokumentuetan, ikerlanerako baliagarria izan daitekeen informazioa bilatzen da. Erabili hurrengo teknika zure dokumentuekin.**

- a. Zenbaki bana eman galderei.
- b. Hautatu dituzun dokumentuetan, bilatu galdera bakoitzaren erantzuna. Erabili ondorengo taula, zure hasierako galderen erantzun gisa jaso duzun informazioa biltzeko:

Nire hasierako galderak	Aurkitutako erantzunak	Erantzuna zein dokumentutan aurkitzen da



Lan-orri hau inprimatzeko: [esdelibro.es](http://esdelibro.es)

**Gogoan** hartu ©

## Fotokopiatu edo eskaneatzen baduzu, zintzo jokatu

Gogoratu liburu edo aldizkarietako orrialdeak legalki fotokopiatu edo eskaneatzeko era nagusiak hauexek direla: edo etxean, zure eskanerraz edo fotokopiagailuaz (zeure erabilera pribaturako baizik ez), edo kopia-denda, liburutegi, ikastetxe edo horrelakoetan, beti ere autoreen eta editoreen baimena duten lekuetan, hau da, CEDROren erreprodukzio-lizentzia duten lekuetan.



# Aipatzeko, oharrak hartu lehenengo

## gure proposamena

Dokumentuak irakurtzen ari zarenean, aipuren bat markatzen baduzu, kopia ezazu gero fitxa batean, eta idatzi baita ere dokumentu horren datuak. Aipu-fitxak erabiltzen badituzu, gero errazago sartuko dituzu ikerlanean kontsultatu lanen egileen pasarteak, aipu marken artean eta hitzez hitz. Erabili fitxa eredu hori, eta idatzi bertan hautatu duzun aipua eta zein dokumentutatik jaso duzun.

Pasarte hautatua

Egilea

Izenburua

Argitaratze lekua

Argitaletxea

Argitaratze urtea

Pasartearen orrialdea





# Bi testu alderatu

eta gainera

Ikerketan zehar, askotan topatuko dituzu gai beraz ari diren bi dokumentu, edo gehiago.

Horregatik komeni da bi testuen sintesia egitea, jakiteko zer informazio duten berdina eta zer desberdina.

Sintesia egiten ikasteko, hortxe duzu jarraibidea.



Lan-orri hau inprimatzeko: [esdelibro.es](http://esdelibro.es)

- a. Bi testuak irakurri.
- b. Idatzi testu bakoitzaren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak.

1. TESTUA	2. TESTUA
<b>IDEIA NAGUSIAK</b>	<b>IDEIA NAGUSIAK</b>
<b>BIGARREN MAILAKO IDEIAK</b>	<b>BIGARREN MAILAKO IDEIAK</b>

- c. Pentsatu zein den bi testuen gai komuna.

- d. Antzerako informazioa eta informazio berria bereizi eta idatzi.

ANTZERAKO INFORMAZIOAK	
INFORMAZIO BERRIAK	
1. TESTUA	2. TESTUA

- e. Ohar horien laguntzaz, bi testuen sintesia idatzi.



# Egintzak eta iritziak bereizi

eta gainera

**Dokumentu batzuk (saiakerak eta prentsako testuak esate baterako) ez dira mugatzen bakarrik gertaerak, prozesuak, egintzak eta abar kontatzera; teoriak ere azaltzen dituzte, edota iritzi jakin batzuen alde agertzen dira.**

**Ikerlan on batean, horiek guztiak idatzi beharko lirateke eta ikertzaileak, gainera, horiei buruz hitz egin behar luke, bere ikuspuntua emateko. Erabili estrategia hau zure ikerketan, ondorengo pausoak jarraituz.**

- a. Irakurri zure dokumentu hautatuetako bat.
- b. Bereizi han agertzen diren informazioak (gertaera, egintza, prozesuei edo beste edozeri buruz) eta iritziak (dokumentuaren egilearenak, edo egileenak, bat baino gehiago badira).

1. TESTUA	INFORMAZIOAK
	IRITZIAK

- c. Idatzi banan-banan dokumentuak defendatzen dituen argudioak; adierazi, baita ere, iturria zein den; eta, azkenik, azaldu argudio horietaz duzun ustea-edo.

ARGUDIOAK	IGORLEA
ZURE USTE PERTSONALA	

- d. Orain, gauza bera egin gainerako dokumentuekin. Eta, arestian bezala, atera dituzun ondorioak idatzi.



## Eman beti erabiltzen dituzun iturrien berri.

Informazio batez baliatzen zaren aldiko, adierazi non aurkitu duzun; zureak ez diren arrazoibideak erabiltzen dituzun aldiko, zehaztu zein pertsonaren edo erakunderen iritziak diren, eta horiekin bat zatozen edo ez. Ez plagiatu inoren iritzirik. Ez zaitetz zurea ez den ezeren jabe egin. Lan baterako beste egile baten obrarik erabiliz gero, ez ahaztu aipatu egin behar duzula. Erabili beti irakurketa kritikorako proposatu dizkizugun estrategiak, argi eta garbi utziz zein ideia diren zureak eta zeintzuk ez.



## Ebaluazioa. Zer moduz?

**Ikasi duzuna gogoan, egin hurrengo galderak zeure buruari eta komentatu gero zure ondorioak taldekoekin:**

- Konturatu al naiz, idazlanen eta bestelako dokumentuen irakurketa kritikoa egiteko normalean erabili ohi ditudan baliabideez?**
- Ikasi al dut behar dudan informazioa dokumentuetan non dagoen zehazten?**
- Ikasi al dut dokumentu baten ideiak jasotzen eta dokumentuaren aipamena behar bezala egiten?**
- Ikasi al dut bi idazlan alderatzen eta informazioa laburbiltzen?**
- Jakin al dut idazlanetan egintzak eta iritziak bereizten?**

**Idatzi zure ondorioak lauki honetan:**

# 8. urratsa: gidoia



## Irakaslearen giltzak

### Helburuak

- Jasotako informazioak eta iritziak alderatu eta antolatzea, ikergaiaren ikuspegi orokorra izateko.
- Lanaren gidoia norberak egitea.

### Lan-plangintza

	GURE PROPOSAMENA		EBALUAZIOA
	Zure diagrama osatu	Gidoia egin	Autoebaluazioa
	Txostena eta praktika	Txostena eta praktika	Jarraitzea
<b>Jarduerak</b>	Ikasleak bere lanaren diagrama mentala osatuko du.	Ikasleak, bere diagrama erabiliz, behin-betiko gidoia idatziko du.	Ikasleak gogoeta egingo du, urrats honetan egindako lanari buruz.
<b>Denbora</b>	15 minutu	15 minutu	30 minutu
<b>Hezkuntza maila</b>	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak

### Ohiko zailtasunak

Ikasleak zailtasunak izan ohi ditu, ikerketaren aldietan zehar bildutako informazioa osorik sistematizatzeko; horregatik galtzen da, sarritan, informazio parterren bat.

Ikasleak aurreko urratsetan lorturiko trebeziez baliatu behar du, ganorazko gidoi bat egiteko, ikerketa prozesua zein aberatsa den islatzeko.





## Ikerketako aurkikuntzak, zeure bihurtu.

Urrats honetan saiatuko zara ikerketan egindako aurkikuntzak ahalik eta gehien zehazten zure gidoian, eta ukitu pertsonala ematen gidoiari.

## Jarduerak

### Zer egin behar duzu?

***Pentsatu duzu inoiz zer egin zenezakeen, aztergai duzun gaiaren puntu garrantzitsu guztiak zure lanean azal daitezen?***

Jardunaren jardunaz, batzuetan, kontsulta-dokumentuen informazio zati batzuk galdu egiten dira, edo ahaztu. Horrelakorik gerta ez dagizun, **urrats honetan ikasiko duzu:**

- Zure diagrama osatzen.
- Behin-betiko gidoia egiten.



# Zure diagrama osatu

gure proposamena

**Horrenbeste dokumentu irakurri eta gero, lehen baino askoz gauza gehiago dakizu. 4. urratsean hasi zenuen diagrama osatu, urratsez urrats biltzen joan zaren informazioekin. Oraingo eginbeharra: testu pertsonal bat idaztea, non informazio guztia integratuko duzun, argi eta txukun. Hara nola egin behar duzun.**



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
[esdelibro.es](http://esdelibro.es)

- Egin zenuen diagrama eskura izan.
- Idatzi informazio berriak diagraman, gaiaren arabera, bakoitzari dagokion adarrean.
- Ordutik hona, beharbada kontzeptu berri edo interesgarriren bat aurkitu duzu, eta adar berri bat sortzea komeniko litzaizuke. Beharrezkoa balitz, sortu adar berriak, eta ideia osagarriak ezarri bertan.
- Eskema zeharo osatua duzunean, erabili oinarri moduan, gidoia idazteko.

*Ikerketan aurrera zoazela, diagrama hau tresna baliagarria izango duzu, lanaren gidoia taxutu, osatu eta aberastu ahal izateko.*

## Gogoan izan aholku hauek:

- Argi eta garbi utzi zein ideia diren zureak eta zeintzuk ez.
- Ez kopiatu pasarte luze askorik, bestela zure lanak «ebaki eta itsatsi» adabaki pilo bat emango du.
- Aintzat hartu eta errespetatu erabilitako dokumentuen egileen ekarpenak, eta adierazi beti zure informazio-iturriak.



# Gidoia egin

gure proposamena

**Diagrama osatua duzu.**  
**Orain, hura abiapuntuztat harturik, hasi zaitez txostenaren gidoia egiten.**  
**Laguntzeko, hemen dituzu egin beharreko pausoak.**


## LAGUNTZA

Ikerketa baten ondorioak edo konklusioak azaltzeko, txostena erabiltzen da normalean. Azalpenezko testu bat, non informazio desberdinak (datuak, egintzak, ondorioak...) aurkezten diren, argi eta txukun antolaturik. Txostenaren helburu nagusia da erakustea ikerketaren objektua den gaiaz egileak zenbat dakien, zer lan eta iturri kontsultatu dituen, eta ikerketaren amaieran zer ondorio edo konklusio atera dituen.

- a. Emaiozu behin-behineko izena zure lanari.
- b. Izendatu, baita ere, kapituluak, atalak eta azpiatalak, diagraman erabili zenituen adarren antolaketa kontuan hartuz.
- c. Begiratu berriro zure lanaren gidoia. Erabili orain artean jaso dituzun oharra, ezer ahaztu ez duzula egiaztatzeko eta gidoia ganorazkoa dela ziurtatzeko.
- d. Begiratu baita ere kontuan hartu ote dituzun gaiaren alderdi guztiak, zure helburuak betetze aldera (zer komunikatu nahi duzun, mezua nori zuzentzen diozun, etab.).

**Hona adibide bat, diagramatik gidoira jauzia nola egin.**

### DIAGRAMA:



Lan-orri hau inprimatzeko: [esdelibro.es](http://esdelibro.es)

## **GIDOIA:**

### **Lanaren behin-behineko izenburua: Liburua**

#### **Atalburuak:**

#### **1. Liburuaren historia**

- 1.1. Liburuak Antzinaroan
- 1.2. Erdi Aroko liburuak
- 1.3. Inprentaren asmakuntza
  - 1.3.1. Inprimatu zen lehen liburua
  - 1.3.2. Inprenta Espainian
- .....

#### **2. Nola ekoizten dira?**

#### **3. Liburuaren itxura**

#### **4. Edukiaren antolaketa**

#### **5. Nola iristen da liburua irakurlearengana?**



# Ebaluazioa. Zer moduz?

**Ikasi duzuna gogoan, egin hurrengo galderak zeure buruari eta komentatu gero zure ondorioak taldekoekin:**

**Nire diagrama zeharo osatu dut.**

- Erraz egin al dut?  
Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_  
Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Nire diagrama lanerako gidoi bihurtu dut.**

- Erraz egin al dut?  
Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_  
Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Orain, idatzi zure ondorioak lauki honetan:**

# 9. urratsa: originala izan



## Irakaslearen giltzak

### Helburuak


- Informazio-iturriak aipatzen ikastea, egileen jabetza intelektuala uneoro errespetatzeko.
- Testu bat egoki parafraseatzen jakitea, jatorrizko esanahiari eutsiz.
- Bibliografia egiten ikastea.

### Lan-plangintza

	GURE PROPOSAMENA			EBALUAZIOA
	Aipatu	Parafraseatu	Bibliografia	Autoebaluazioa
	Praktika	Praktika	Praktika	Jarraibidea
<b>Jarduerak</b>	Ikasleak dokumentuak behar bezala aipatzen ikasten du.	Ikasleak testu bat behar bezala parafraseatzen ikasten du.	Ikasleak lanaren amaierako bibliografia egiten ikasten du.	Ikasleak gogoeta egingo du, urrats honetan egindako lanari buruz.
<b>Denbora</b>	15 minutu	15 minutu	30 minutu	15 minutu
<b>Hezkuntza maila</b>	Ziklo guztiak	DBHko 2. zikoa eta batxilergoa	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak

### Ohiko zailtasunak

Ikasleen ikerketa lanek, ezta onenek ere, ez dituzte normalean informazio-iturriak behar bezala islatzen, edo bakarrik neurri batean egiten dute. Aldi honetan, beraz, garrantzizko kontua da ikasleek ikas dituzten ikerketan zehar kontsultaturiko informazio-iturriak beren lanean zuzen txertatzeko dauden era desberdinak.



Pentsatu kopiatzea, antzeratzea eta plagiatzea ez direla gauza bera.

Plagioa delitu bat da, egileen jabetzaren eskubidea urratzea baitakar jatorria ezkutatuz besteren ideiez eta sortze-lanez jabetzeak. Jatorrizko sortze-lanak, aldiz, nahiz eta lehenagoko ezaupideak eta ikerketak erabili, zerbait berria eskaintzen du beti: gaiaren osagarri den ideia bat, ikusmolde berri bat, interpretazio berri bat, sintesi edo biltze original bat, etab. Zure lanaren konklusioetan, jaso dituzun informazioen, hitzez hitzeko aipuen, irudien edo erabili duzun beste edozeren egileak aipatu behar dituzu, guzti-guztiak.

## Jarduerak

### Zer egin behar duzu?

***Egia esateko, ez dago ezer berririk eguzkiaren azpian.***

Idea berriak, sorkuntza berriak, asmakuntza berriak etab., lehenagoko ereduetatik abiatzen dira beti. Zilegi da, beraz, zure ikasbidearen hasieran egile baten estiloa imitatzea, esate baterako, edo zuk baino lehenago beste ikertzaile batzuek egin dituzten esperimenduak eta esperientziak berregitea. Testu batzuen zatiak ere kopia ditzakezu, edota beste egile batzuen grafikoak edo dokumentuetatik jasotako informazio batzuk errepikatu, egile horiek baino hobeto adieraztea ezinezkoa zaizunean. Baina, halakoetan, baldintza batzuk bete behar dituzu, egileek jabetza intelektualarekiko dituzten eskubideak uneoro errespetatze aldera. **Unitate honetan ikasiko duzu:**

- Beste egile batzuen idazlan zatiak aipatzen.
- Dokumentuak parafraseatzen.
- Bibliografia bat nola egiten den.

# Aipatu

**Aipuak egitea da egile baten pasarteren bat hitzez hitz kopiatzea. Ez ahaztu, ezer aipatzen duzun bakoitzean, pasartea aipu marken artean jarri behar duzula eta ohar bibliografikoa egin behar duzula amaieran.**

**Orain, jaso dituzun oharrak begiratu eta saia zaitetz aipu bat egiten, ikerketarako hautatu dokumenturen batetik. Adibide horietan oinarritu.**

## LAGUNTZA

**Zirriborroan aipuak txertatzeko bi modu daude:**

**Orrialdearen oinaldeko edo kapitulu amaierako aipua**

Interesatzen zaizun pasartea kopiatu. Aipu marken artean idatzi, edo letra etzanetan bestela, eta amaieran, bidaltze marka ezarri, (1).

**Adibidez:**

«En mi opinión, lo que hace que una ciencia avance es precisamente la voluntad de no aferrarse a algo que un día funcionó suficientemente bien y nos condujo hasta el lugar donde hoy estamos, pero que ya no funciona igual de bien y nos mantiene en un punto muerto» (1).

Gero, orrialdearen oinaldean edo kapituluaren amaieran, bidaltze marka idatzi (1), eta alboan aipua nondik jaso duzun:

(1) Geertz, Clifford, *Los usos de la diversidad*. Barcelona: Paidós/ICE/UAB, 1996, 123. orr. (Itz. Alberto Taberna).

**Aipua, amaierako bibliografian**

Interesatzen zaizun pasartea kopiatu eta idatzi amaieran, parentesi artean, egilearen izena eta informazioa jaso duzun dokumentuaren argitaratze urtea. Aipu mota hau erabilgarria izango zaizu, baldin eta bibliografian formatu berdina erabiltzen baduzu.

**Adibidez:**

«En mi opinión, lo que hace que una ciencia avance es precisamente la voluntad de no aferrarse a algo que un día funcionó suficientemente bien y nos condujo hasta el lugar donde hoy estamos, pero que ya no funciona igual de bien y nos mantiene en un punto muerto» (Geertz, 1996).

Amaierako bibliografian honela agertu beharko litzateke:

Geertz, C. (1996): *Los usos de la diversidad*. Barcelona: Paidós/ICE/UAB, 1996, 123. orr. (Itz. Alberto Taberna).







# Parafraseatu

gure proposamena

**Parafraseatzea da beste egile batek adierazi duen ideia bat esatea, baina zeure hitzak erabiliz.**



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

## ADIBIDEA

### Hautatutako dokumentu baten testu zati bat

«En mi opinión, lo que hace que una ciencia avance es precisamente la voluntad de no aferrarse a algo que un día funcionó suficientemente bien y nos condujo hasta el lugar donde hoy estamos, pero que ya no funciona igual de bien y nos mantiene en un punto muerto» (Geertz, 1996).

### Zure testua

Ezarritako ordena aldatzeko prest dauden jarrerai esker eman da beti jakintzaren aurrerabidea, ordena eztabaidan jarri ez ezik gauzak egiteko beste modu bat badagoela esaten baitute, Geertz-ek dioenez (1).

### *Ikas ezazu parafraseak egiten eta zure ikerlanean erabiltzen. Honako urratsak egin:*

- Esan zure ikerketako zer dokumentuetatik jasoko duzun pasarteren bat, amaierako txostenean aipua egiteko.
- Orain, irakurri duzun dokumentuan egileak esaten zuena idatzi, baina zeure hitzak erabiliz. Parafraseak behar bezala egiteko, honelako espresioak lagungarriak izango zaizkizu: «-en arabera...», «-k dioenez...», «-ren iritiz/iritzian...», «adierazten duen bezala...», «frogatzen duenez...», eta abar eta abar.
- Egiatzapen-zerrenda honen laguntzaz, behar bezala parafraseatu ote duzun aztertu:
  - Jatorrizko testua ongi ulertu al dut?
  - Jarri al dut egilearen ahotan testuan esaten ez zuen zerbait?
  - Beste testuinguru batean erabiltzen dudan arren, zintzo jokatzan ari ote naiz egileak helarazi nahi zuen jatorrizko ideiarekin?
  - Hizkuntza aldetik, jatorrizko testuan bezalako doinua eta erregistroa erabiltzen al ditut?
  - Hizkuntzari dagokionez, egin al ditut behar ziren aldaketak dokumentuaren edukia neure hitzez adierazteko (antzeko hitzak sartu, hobeto ulertzen ditudan edo gehiago gustatzen zaizkidan hitzak erabili, esaldi batzuen egitura aldatu, etab.)?
- Begiratu egilearen izena ere idatzi ote duzun, haren aipamena egin beharko baituzu orrialdearen oinaldean, kapituluaren amaieran edo amaierako bibliografian.

# Bibliografia

Ikerlanaren ondorioak aurkezterakoan, erabili dituzun informazio, hitzez hitzeko aipu, grafikoen eta dena delakoan egileen eta iturrien izenak aipatu beharko dituzu. Horretarako, zerrenda bat idatziko duzu txostenaren amaieran, dokumentu guztien datuekin.

Zerrenda horri bibliografia deitzen zaio. Begiratu berriro zure ikerlana –fitxak, oharrak, eskemak... eta egiaztatu ez duzula inoren ideiarik plagiatu nahi gabe. Zure ekarpenak ere aintzat hartu, originalak direla iruditzen bazaizu.

Orain, zerrenda bibliografikoa egin, erabili dituzun dokumentu guzti-guztien egileak adieraziz.

Nola egin ez badakizu, hemen adibide batzuk:

**a. Liburuak.** Kontsultatu dituzun liburu guztien zerrenda egin, eta aipatu bibliografian hauekako era batean:

IDAZLEAREN DEITURA/K, Izenaren/Izenen hasiera letra (argitaratze urtea). <i>Izenburua.</i> Argitaratze lekua: Editorea	CERVANTES SAAVEDRA, M. de. <i>Don Quijote de La Mancha.</i> Madril: Biblioteca Nueva, 2006.
IDAZLEAREN DEITURA/K, Izenaren/Izenen hasiera letra (argi- taratze urtea). <i>Izenburua.</i> Argitaratze lekua: Editorea	CERVANTES SAAVEDRA, M. de (2006). <i>Don Quijote de La          Mancha.</i> Madril: Biblioteca Nueva.

**b. Entziklopedietako artikulak.** Entziklopedietatik jaso dituzun artikulak batu eta egizu haien aipamena honela:

Artikuluaren izenburua. <i>Entziklopediaren izena.</i> Argitaratze lekua: Editorea, Argitaratze urtea, liburuki zenbakia, artikularen lehen orrialdearen zenbakia – azkenekoarena.	Cervantes, Miguel de. <i>Diccionario          Enciclopédico Salvat.</i> Bartzelona: Salvat Editores, 1972, 3. liburukia, 149. orr.
---	--

**c. Aldizkari, egunkari eta beste argitalpenetako artikulak.** Aldizkari eta egunkarietako artikulak aipa itzazu horrela:

IDAZLEAREN DEITURA/K, Izenaren/Izenen hasiera letra. Artikuluaren izenburua. <i>Argitalpenaren izena,</i> Argitaratze urtea, Aldizkari alearen zenbakia, Artikuluaren lehen orrialdearen zenbakia – azkenekoarena.	AYALA, F. «Todo ya en el Quijote». <i>Ínsula</i> , 1991, 538. zenbakia, 38- 39 orr.
---	---

Idazlearen izenaren ondoren ere argitaratze urtea jar dezakezu parentesi artean, liburuen aipamenak egiteko bigarren aukeran bezala. AYALA, F (1991). «Todo ya en el Quijote». *Ínsula*, 538. zenbakia, 38-39 orr.

**d. Web orrialdeak.** Azkenik, kontsultatu dituzun web orrialde guztiak idatzi eta zehaztu gutxienez helbidea, eta kontsulta noiz egin den.

Don Quijote de la Mancha.	<a href="http://es.wikipedia.org/wiki/Don_Quijote_de_la_Mancha">http://es.wikipedia.org/wiki/Don_Quijote_de_la_Mancha</a> Kontsulta: 2006ko apirilaren 23a.
---------------------------	--



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**



# Ebaluazioa. Zer moduz?

**Ikasi duzuna gogoan, egin hurrengo galderak zeure buruari eta komentatu gero zure ondorioak taldekoekin:**

**Ikasi dut hitzez hitzeko aipuak egiten iturria behar bezala adieraziz.**

- Erraz egin al dut?  
Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_  
Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Ikasi dut parafraseak egiten © errespetatuz.**

- Erraz egin al dut?  
Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_  
Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Nire ikerlanaren bibliografia egiten ikasi dut.**

- Erraz egin al dut?  
Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_  
Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Orain, idatzi zure ondorioak lauki honetan:**

# 10. urratsa: txostena



## Irakaslearen giltzak

### Helburuak

- Ikasleari txosten motak eta mota bakoitzaren erabilgarritasuna erakustea.
- Testu original bat idatzi ahal izateko, bildutako informazioak erlazioztatzea beste testu batzuetako informazioekin, lehendik genekienarekin eta norberaren esperientziarekin.
- Ikerketa-txostena txukun eta zentzuz idaztea, langintza horrek eskatzen dituen aldiak behar bezala jarraituz (zirriborroaren idazketa eta azken bertsioaren idazketa).
- Idazterakoan, norberaren ideiak egoki osatzen eta adierazten ikastea.
- Ahozko azalpen bat eta horma-irudi bat egin ahal izateko, haien ezaugarriak eta hartarako estrategiak ezagutzea.

### Lan-plangintza

	GURE PROPOSAMENA				ETA GAINERA		EBALUAZIOA
	Erabaki nolako txostena nahi duzun	Zirriborroa idatzi	Txostena idatzi	Egiaztatu...	Ahozko azalpena	Horma-irudia edo panela	Autoebaluazioa
	Praktika	Praktika eta galdeketa	Praktika eta galdeketa	Galdeketa	Txostena	Txostena	Jarraitubidea
<b>Jarduerak</b>	Ikasleak ikerlanaren ondorioak aurkezteko dituen aukerak aztertuko ditu, eta txosten idatziaren ezaugarriak ikasiko ditu.	Ikasleak lanaren zirriborroa idatziko du, eta gero zuzenketak egingo ditu bertan.	Txosten idatziaren egiturara moldatuko du ikasleak bere ikerlana.	Ikasleak bere txostena aztertuko du, egiaztapen-zerrenda batez lagundurik.	Ikerlanaren ahozko azalpen bat egiteko jakin behar den guztia ikasiko du ikasleak: zer den kontuan hartu beharrezkoak, zein estrategia diren aproposak.	Ikasleak horma-irudiaren eredia ezagutuko du	Ikasleak gogoeta egingo du, urrats honetan egindako lanari buruz.
<b>Denbora</b>	Zehaztugabea	Zehaztugabea	Zehaztugabea	15 minutu	Eskola-saio bat: 50 minutu	20 minutu	15 minutu
<b>Hezkuntza maila</b>	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak	Ziklo guztiak

## Ohiko zailtasunak

Ikerketa on bat pikutara joan daiteke, ikasleek emaitzak edozein modutan eta hutsunez beterik aurkezten badituzte.

Batzuetan ezjakintasunagatik, beste batzuetan agudo amaitu nahi izateagatik, kontua da prozesuaren aldi honetan ikasleak ez direla gai izaten aurreko urratsetan ikasitakoari etekina ateratzeko. Arazo horiek konpontzeko asmoan, urrats honetan hainbat aholku ematen zaie ikasleei, bai idazlana aurkezteko moduz bai txostenaren azken idatzaldiaz.



## Eskubideak dituzu, sortzaile gisa ere.

Jabetu behar duzu ikerlana burutzeko egin behar izan duzun ahalegin handiaz. Zeu ere sortzaile zarenez, eskubide batzuk dagozkizu, eta besteek aintzat hartu beharko dituzte.

## Jarduerak

### Zer egin behar duzu?

Erabili dituzun iturri desberdinetako informazioak moldatzen ikasiko duzu. Orain, bildu duzun informazio mordo horrekin zerbait berria sortu behar duzu. **Horregatik, bada, urrats honetan:**

- Zure ikerketaren emaitzak aurkezteko modurik onena zein den pentsatuko duzu.
- Lanaren lehen zirriborroa idatziko duzu, kontuan hartuz ikerketa-txostenaren ezaugarriak eta idazketaren oinarritzko arauak.
- Txostenaren azken bertsioa idatziko duzu.
- Azken orraztua emango diozu ikerlanari.
- Ahozko azalpen bat eta horma-irudi bat nola egiten diren ikasiko duzu.

# Erabaki **nolako** txostena **nahi** duzun

Zure ikerketaren emaitzak plazaratzeko, hainbat erataria egin dezakezu (testu idatzia, hitzaldia, irudi bidezko informazioa...), baina era bakoitzean informazio mota bat gailentzen denez, zein edo zeintzuk erabili aukeratzeko orduan, kontuan hartu beharko dituzu faktore batzuk:

- Zer informazio jakitera eman nahi duzun.
- Zein asmoz helarazi nahi duzun.
- Zer jenderi adierazi nahi diozun.

Zure ikerketan pentsatu, pauso hauei jarraitu.



Lan-orri hau inprimatzeko: [esdelibro.es](http://esdelibro.es)

a. Adierazi taulan zure txostenaren alderdi nagusi hauek:

ZER HELARAZI NAHI DUT?	NORI ADIERAZI NAHI DIOT?	NOLA EGINGO DUT?
Zein da nire asmoa?	Gelako lagunei	Lanaren itxura fisikoa: papera, formatu elektronikoa, ikus-entzunezkoa...
	Irakasleari	Lana azaltzeko era: prentsako artikulua, saiakera, hitzaldia... discours...
	Jende espezializatuari	Ikuspegia: orokorra, partziala, sakona...
	Edonori	Hizkuntza maila: jasoa, laua, lagunartekoa...
	(Beste aukera batzuk)	Doinu nagusia: serioa, ironikoa, umorezkoa...

Adibidez:

ZER HELARAZI NAHI DUT?	NORI ADIERAZI NAHI DIOT?	NOLA EGINGO DUT?
Gelako lagunei nire ikerketa ezagutzera eman, beren jakin-nahia zirikatzeke moduan.	Nire ikaskideei.	Lana azaltzeko era: formatu elektronikoa (PowerPoint)
		Lana azaltzeko era: txostena
	Argitara ematen dudanean, esdelibro.es orriaren bisitariari.	Ikuspegia: partziala
		Hizkuntza maila: lagunartekoa
		Doinu nagusia: serioa

## Informazio grafikoak ere jabea du.

Informazio grafikoa ere (marrazkia, eskema, argazkia, infografia, plano, mapa, etab.) pertsona baten edo enpresa baten jabetza intelektualala izan daiteke. Horregatik, zure lanean edozein irudi sartu baino lehen, erabilpen-baldintzak zeintzuk diren jakin beharko duzu, sortzaileei baimena eskatuko diezu, eta den-denak aipatuko dituzu, jatorrizko iturriak zein egileak.

## b. Aztertu zer informazio grafiko erabiliko duzun.

Eskemak, argazkiak, grafikoak, krokisak, eta irudiak oro har testu baten osagarri sendoak izan daitezke, eta, noiz nahi, baita dokumentuaren informazio nagusia ere. Horregatik agertu behar duzu horrelako informazioa zure ikerlanean. Zerorrek sortuak izan daitezke, edo beste jatorri batekoak. Aztertu, beraz, zer informazio grafikorekin jantzi dezakezun ikerlana, kontuan hartuta, noski, nola emango duzun erakustera:

- Neure argazkiak.
- Beste jatorri bateko argazkiak.
- Neure grafikoak.
- Beste jatorri bateko grafikoak.
- Neuk egindako eskemak.
- Inork egindako eskemak.
- Neure marrazkiak.
- Inork egindako marrazkiak.





# Zirriborroa idatzi

gure proposamena

**Zirriborroa deitzen diogu, kasu honetan, testu baten lehen idatzaldiari. Lanean aurrera egin ahala, aldaketak eta zuzenketak egingo dizkiozu. Zirriborroa egiteko, gidoia hartu behar duzu abiapuntu. Zuzenketak egiten dizkiozun neurrian, bertsio berriak ere aldiro izango dituzu. Horregatik komeni da zenbaki bat ematea idatzaldi bakoitzari.**



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

- Gidoia eskura izan (8. urratsean egin zenuen).
- Hasi zaitetz idazten, eta han agertzen diren ideia guztiak azaltzen.
- Atal bakoitza idatzi ahala, lehen zuzenketak egiten joango zara:

- Idatzitakoaren lehen irakurraldia egin, baina erreparatu soilik ideiak nola azaldu dituzun:

Ondo ulertzen al da esan nahi zenuena?

Ba al du zentzurik?

Falta al da ezer?

Erabilitako iturriak aipatu dituzu?

Ba al da ideiarene bat gehiegitan azaltzen dena? Ezer soberan?

Halako paragrafoa halako lekutan hobeto egongo litzateke?

Eta albaon idaz dezakezu: sakondu, laburtu, kendu, lekuz aldatu.

- Hartu zirriborroa eta begiratu aurreikusitako kapitulu, atal, sail eta azpisail guztiak ondo azaltzen ote diren, eta bakoitzak dagokion grafiko, eskema edo irudia ba ote duen.
- Irakurri berriro dena, eta, oraingoan, arreta handia eskaini idazkerari: ortografia, puntuazioa, marka bereziak, joskera, etab.
- Begiratu aipuei, ea bakoitzak bere ohar bibliografikoa ote duen.

**Idazketa arau oinarrizko batzuk.**

Zure txostenaren helburua da informazioa garbi eta txukun adieraztea eta irakurlearen jakin-mina zizatzea. Hori lortu nahi baduzu, idazkera aholku hauei kasu egin:

- Ez dadila kapitulu laburregirik edo luzeegirik egon; informazioa banatzerakoan oreka gorde.
- Informazio grafikoa edo irudizkoa ere zentzuz eta orekan banatu. Hautatuko dituzun irudiek testua dotoretu behar dizute.
- Kapitulu bakoitza paragrafoz paragrafo garatu. Ez ahaztu, paragrafo baten helburua ideia bat, edo ideia baten alderdi bat, adieraztea dela.
- Ez dadila inor aspertu: ez kontatu Pernandoren egjak, ez kontatu ideia bat behin eta berriz.
- Saiatu datuak neurrian ematen, pixkanaka eta sailean: ideia edo kontzeptu berriak aurretik azaldu diren kontzeptuetan oinarrituko dira beti.
- Saiatu testuan zatiak zatiari lotzen, lokailuak eta testu-markatzaileak erabiliz.



# Txostena idatzi

gure proposamena

**Txosten idatzi batek, ona bada behintzat, bere egitura izan behar du eta idazketaren arau oinarrizko batzuk bete behar ditu, edukia ahal bezain argi adierazteko eta komeni diren informazioak azkar baino lehen bilatzeko. Zure txostena taxuz idazteko, urrats hauei segi.**



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

a. Aurrean hartu zirriborroa, eta erabaki zein izango den lanaren edukia hobeki adierazten duen izenburua, beharrezkoa balitz, izenburu osagarria ere bai, ideia hobeto zehazteko. Datu horiek izenburu orrialdea antolatu, non zure izena agertuko den (banakako lana bada) edota zurea eta zure taldearena (talde-lana bada). Orrialde horretan lana noiz amaitu den ere agertu behar da.

b. Aitzinsolasa eta gibel solasa idatzi.

- Sarreran, gaiaren aurkezpena egin, ikerketaren helburuak eta mugak adierazi, eta baita lanaren egitura ere bai; alegia zenbat zatitan eta zeintzutan eratu duzun edukia
- Konklusio edo ondorio gisa, ikerlanaren ideia nagusiak laburbildu.

c. Amaierako bibliografia osatu, 9. urratsean egin zenuen behin-behineko zerrendaz lagundurik.

d. Lehen orrialdean txostenaren aurkibideak egon behar du, lanaren kapitulu edo zati bakoitzaren izenekin, eta bakoitza non hasten den adierazten duen zenbakiarekin. Lanaren idazketari ekiteko egin zenuen gidoiaren oso antzekoa izango da, edukiz, aurkibidea.

e. Azkenik, azalaren diseinua egin; azala baita txostenaren babesgarri eta adierazgarri.

f. Irakurri berriro idatzi duzun guztia goitik behera, eta azken orraztua eman, behar diren aldaketak eta zuzenketak eginez. Beharbada paragraforen bat kendu beharko duzu, edo beste nonbait kokatu, gehiegi errepikatzen den hitzen bat ezabatu, esaldi traketsen bat moldatu, ortografia akatsak zuzendu...

g. Emaizarekin gustura geratzen zarenean, lana hobetzerik ez dagoela uste duzunean, txostena amaitu duzun seinale, behin betiko. (Testu prozesadore bat erabili baduzu, lana prest duzu; eskuz idatzi baduzu, dena garbira pasatu beharko duzu).



# Egiaztatu...

gure proposamena

**Erabili egiaztapen-zerrenda hori, ezer ahaztu ote zaizun ikusteko.**



Lan-orri hau inprimatzeko: [esdelibro.es](http://esdelibro.es)

Kontuan hartu ditut ikergaiaren inguruko giltza-hitzak	Bai	Ez
Era askotako dokumentuak arakatu ditut	Bai	Ez
Dokumentu interesgarrienak hautatu ditut nire ikerlanerako	Bai	Ez
Gero irakurri egin ditut, eta oharrak jaso ditut	Bai	Ez
Kopiatu beharrean, ideia garrantzitsuenen sintesia egin dut	Bai	Ez
Diagrama bat prestatu dut	Bai	Ez
Gidoia idatzi dut	Bai	Ez
Gidoia erabiliz, lanaren zirriborro bat idatzi dut	Bai	Ez
Lanaren sarrerako testua ere idatzi dut, eta bertan, gaiaren mugak zehaztu ditut	Bai	Ez
Ikerketatik atera dudana ondo ere idatzi dut	Bai	Ez
Inoren aipuak ere erabili ditut	Bai	Ez
Begiratu dut aipu guztien jatorria ere adierazi dudala	Bai	Ez
Azken zirriborroa garbira pasatu dut	Bai	Ez
Azalaren diseinua ere egin dut	Bai	Ez
Hasierako orria ere diseinatu dut, eta bertan azaltzen dira:		
izenburua	Bai	Ez
izenburu osagarria edo azpitulua	Bai	Ez
egileen izenak	Bai	Ez
nire ikastaldearena	Bai	Ez
data	Bai	Ez
ilustratzeko edo apaintzeko, irudi bat ertzean	Bai	Ez
Bigarren orrialdian, berriz, aurkibidea jarri dut, ondo zehaztuz dena	Bai	Ez
Lana irudiz jantzi dut	Bai	Ez
Irudi guztien barrenean, argazki-oina idatzi dut	Bai	Ez
Erabilitako dokumentu guztien bibliografia egin dut	Bai	Ez

## Zeuren sortzailea zara.

Lanari amaiera ematen diozun unetik, zeuren ideien jabe zara eta horien jabetza intelektualak ere zeurea da. Honenbestez, ideiak inork beste lan batzuen abiapuntu bezala erabiliko balitu, zure izena aipatu behar luke. Ez ahaztu hori!



# Ahozko azalpena

eta gainera

Ahozko azalpen bat egitea ez da testu bat irakurtzea, baizik eta entzuleari ideia batzuk helaraztea, haren jakin-mina erakarriz. Horrek ikerlana aurretik ondo prestatzea eskatuko dizu, eta fitxak egitea ere bai, ohar eskematikoz beterik, hitzaldian zehar begien aurrean izan eta ezer ez ahazteko. Hitzaldiaren probasaio bat egitea ere oso da garrantzizkoa.



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
**esdelibro.es**

## Zure oharretan agertu beharrekoak:

- izenburua,
- plangintza,
- sarrera (aitzinsolasa) eta amaiera (gibel solasa),
- tratatu beharreko puntu nagusiak,
- gai batetik beste batera igarotzeko formula batzuk,
- aipuak, dokumentuei buruzko erreferentziak, etab.

Oharretako testuak deigarriak izan behar dute: tamaina ederreko letretan egin, koloreak erabili, ikurrak sartu... Fitxen alde batean bakarrik idatzi; antolatu fitxak zenbaki bana emanez.

## Eraz azaldu behar dituzu ideiak.

### Eredu gisa, egitura hau erabil dezakezu

#### • 1. Sarrera

Testu bat izan daiteke, gaiaren aurrerapena emanez, edo aipu bat, edo pasadizo bat, galdera bat, eskolan landutako ikasgai baten erreferentzia, eta abar.

#### • 2. Tesia

Azalpena hasteko, lanaren plangintza aurkeztu, mintzagai izango dituzun puntu nagusiak adieraziz. Harbelean idatziz gero, jende guztiak ikusi ahal izango du. Hitzaldian zehar, plangintza gogoraziko duzu noiz edo noiz; atal berri bati ekin behar diozunean, esate baterako. Gero, sailak banan-banan jorratu. Zure azalpenak argiagoak eta erakargarriagoak izan daitezten, hainbat baliabide erabil dezakezu; hala nola, grafikoak, marrazkiak, argazkiak, mapak, diapositibak, maketak, grabazioak, eta abar.

#### • 3. Konklusioa

Azken zatia da; bertan, ideia nagusiak esango dituzu berriro, eta ikerketatik atera dituzun ondorioak azaldu. Dotore amaitzeko, aipu esanguratsu eta zirrargarri bat esan dezakezu.



# Horma-irudia edo panela

eta gainera

Lana aurkezteko bi era aztertu ditugu: lehenengoan idatzizko testua zen nagusi, bigarreanean, berriz, ahozkoa.

Aurkezpena egiteko beste era bat ikusiko dugu orain, testu idatzia eta irudi bidezko informazioa konbinatzen duena. Informazio grafikoa gailentzen da, hala ere.

## *Zein da horma-irudi baten eredua?*

### Horma-irudiaren ezaugarrietako batzuk:

- Behartzen dute ideiak ahalik eta gehien soiltzera, funtsezkoena bilatu eta muina baino ez adieraztera.
- Egokiak dira talde-lanean egiteko, gainera, kide bakoitzak dituen abildadeen arabera bana daiteke lana (idatzi, laburbildu, diseinatu, marrazkiak egin, etab.).
- Ezin da ahaztu teknika honek kutsu artistikoa eta estetikoa nabaria duela.
- Ahozko azalpen bati laguntzeko erabil daitezke.
- Aurkezteko erak berebiziko garrantzia du eta arau batzuk bete behar ditu:
  - \* Oreka gorde behar da, testuen eta irudien proportzioen artean.
  - \* Edukia ulergarriago adierazte aldera, ertzak libre uzten dira eta dokumentuak mugatzeko hutsarteak erabiltzen dira.
  - \* Edukiak sailka ipintzen dira, gai bereko dokumentuak horma-irudiaren leku batean bildurik.
  - \* Dokumentu batzuk nabarmendu egiten dira, ageriko lekuetan jarri, lauki baten barruan sartuz, koloreztatuz, geziak erabiliz, etab.
  - \* Irakurketaren norabidea errespetatu behar da: gurean, ezkerretik eskuinera eta goitik behera.

Horma-irudi asko kartulinaran egiten badira ere, handiago egin nahi izanez gero, iragarki-taula erabil daiteke, esate baterako.



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
[esdelibro.es](http://esdelibro.es)



# Ebaluazioa. Zer moduz?

**Ikasi duzuna gogoan, egin hurrengo galderak zeure buruari eta komentatu gero zure ondorioak taldekoekin:**

**Jakin dut txosten on batek nolako egitura izan behar duen.**

- Erraz egin al dut?  
Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_  
Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Idazketaren oinarrizko arau batzuk erabili ditut.**

- Erraz egin al dut?  
Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_  
Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Zirriborroa idazten eta zuzentzen ikasi dut.**

- Erraz egin al dut?  
Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_  
Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Azken bertsioa idatzi dut, behin-betikoa.**

- Erraz egin al dut?  
Zeintzuk izan dira zailtasunak? \_\_\_\_\_  
Nola gainditu ditut? \_\_\_\_\_

**Orain, idatzi zure ondorioak lauki honetan:**

# II. urratsa: Interneten



## Irakaslearen giltzak


### Helburuak

- Prozesuaren aldi guztiak banan-banan berraztertzea, lanean zehar jabetza intelektualaren eskubidea errespetatu dela egiaztatzeko.
- Ikerlana [www.esdelibro.es](http://www.esdelibro.es) orrian argitaratzea.

### Lan-plangintza

	GURE PROPOSAMENA
	<b>Zurea de libro ikerketa bat al da?</b>
	Galdeketa
<b>Jarduerak</b>	Ikasleak, galdera batzuei erantzunez, aztertzen du bere ikerlanak prozesuaren urrats guztiak egin ote dituen, jabetza intelektualaren eskubidea errespetatuz.
<b>Denbora</b>	30 minutu
<b>Hezkuntza maila</b>	Ziklo guztiak





## Gogoan hartu beti ©.

Ibilbide guztian zehar, jabetza intelektualak errespetatzeko ideia batzuk eman dizkizugu. Gonbita egiten dizugu © gogoan har dezazun beti.

Egingo duzu, ziur; honaino iritsi bazara honezkero jakingo duzu-eta zuk ere, sortaile zaren aldetik, zeure eskubideak dituzula.

## Jarduerak

### Zer egin behar duzu?

Azkenik, iritsi zara amaierara; bidea luzea eta emankorra izan da: dagoeneko ikerlana egina duzu eta, agian, argitara eman dezakezu. **Argitaratzeko modukoa den erabakitzeke, unitate honetan:**

- Egiaztatuko duzu zure ikerlana *de libro* ote den; hau da, erabili dituzun lanen egileen jabetza intelektualak urrats guztietan errespetatu ote duzun.
- Esango dizugu zer egin behar duzun zure lana guri helarazteko.



# Zurea *de libro* ikerketa **bat** al **da**?

gure proposamena

Erantzun alboko galdeketari zintzo eta zuzen. Behar beste puntu lortzen baduzu, hurrengo aldira igaroko zara: [ww.esdelibro.es](http://ww.esdelibro.es) orrian argitaratu.

## ZUREA DE LIBRO IKERKETA BAT AL DA?

1. Ikerlan pertsonal bat egitea helburu, saiatu zara zure interesetan oinarritzen den gai bat aukeratzen?	bai	ez
2. Ondo baloratu dituzu zure ideiak eta lan originalak?	bai	ez
3. Zure lanaren zati bat edo lan guztia taldean egin baduzu, errespetatu eta aintzat hartu al dituzu taldekideen ideiak eta lan originalak?	bai	ez
4. Saiatu al zara gelakideek proposaturiko gaiak, osorik edo zati batean, ez kopiatzen?	bai	ez
5. Saiatu zara ez kopiatzen, ez imitatzen, zure kideen ideia edo lan originalak, nahiz osorik nahiz zati batean?	bai	ez
6. Zure lanean irakasle bat edo beste norbait izan baduzu gidari, gogoratu al zara haren izena aipatzeaz?	bai	ez
7. Ahalegindu al zara kontratuan zehazten ziren informazio-iturri guztiak erabiltzen?	bai	ez
8. Begiratu duzu zure informazio-iturriak fidagarriak ote ziren?	bai	ez
9. Zure informazio-iturriak beti-beti jaso dituzu?	bai	ez
10. Aipatu al dituzu informazio guztiak, bat ere ahaztu gabe (liburuak, egunkariak, aldizkariak, CD-ROMak, Internet orrialdeak, etab.), amaierako bibliografian?	bai	ez
11. Inoren hitzez hitzezko esaldiak edo informazio-iturrietatik jaso dituzun aipuak jarri al dituzu kakotx artean, eta zehaztu duzu ohar bibliografikoetan nondik hartuak diren?	bai	ez
12. Inkestetatik edo inori egindako elkarrizketetatik datuak jaso badituzu, informazio-iturri horiek ere aipatu al dituzu?	bai	ez
13. Hitzaldiren batera joan bazara eta han esandako informaziorik jaso eta erabili baduzu, adierazi al duzu iturria behar bezala zure lanean?	bai	ez
14. Gogoratu al zara lanerako erabili dituzun grafiko, argazki edo irudien egile guztiak aipatzeaz?	bai	ez
15. Nahiz eta zeurea izan, beste batek sorturiko lanean oinarritu bazara eskema bat, grafiko bat, taula bat, etab. egiterakoan, eman al duzu horren azalpenik gero?	bai	ez
16. Lanaren amaieran egin al duzu bibliografia bat, osoa eta zehatza, kontsultatu dituzun era guztietako dokumentuen berri emanez?	bai	ez
17. Eskertu eta aintzat hartu al duzu ikerketan zehar pertsona batzuek –irakasleak, liburuzainak, etab.– eskaini dizuten laguntza?	bai	ez



Lan-orri hau  
inprimatzeko:  
[esdelibro.es](http://esdelibro.es)

18. Ondo zaindu al dituzu esku artean erabili dituzun liburua eta dokumentuak?	bai	ez
19. Konturatzen al zara urteen eta mendeen buruan sortzaile eta profesional askok eta askok egin behar izan duten ahaleginaz, informazio euskarriez baliaturik, beren ideiak zuregana hel zitezen?	bai	ez
20. Ikerketa egiteko oinarritu zaren lanen egileak aintzat hartu al dituzu?	bai	ez
21. Zure lana egiteko, artikulua edo orrialde batzuk fotokopiatu badituzu, autoreen eta editoreen baimena duen gune batean egin al dituzu, hau da, CEDROren erreproduzio-lizentzia duen gune batean?	bai	ez
22. Jabetu al zara ikerketan zehar erabili dituzun ideiak beren sortzaileen jabetza intelektuala direla?	bai	ez
23. Saiatu al zara inoren ideiez ez jabetzen? Tentuz ibili zara kopiaketa hutsa ez egiteko, plagiorik ez egiteko?	bai	ez
24. Ahalegindu al zara puzzle efektu delakoa edo besteren aipuen gehiegizko erabilera saihesten, eta lorturiko informazioa berregiten sintesi pertsonal bat eginez?	bai	ez
25. Konturatu al zara badirela jokabide batzuk, nahita edo nahi gabe baina egile eskubideak urratzen dituztenak?	bai	ez
26. Egin al duzu ekarpen propiorik, zure ikuspegi pertsonala eman, ikerlana aberatsagoa eginez?	bai	ez
27. Zure ikerlanean garbi utzi al duzu zein iritzi ziren zureak eta zeintzuk inorenak?	bai	ez
28. Jabetzen al zara, zure ikerketa lan original bihurtu duzun unetik beretik, zeu ere sortzailea zarela?	bai	ez
29. Nahi al duzu zure lana argitaratzea eta besteek ere lanaz baliatzeko onura izatea, zure egile eskubideak errespetatuz eta aintzat hartuz?	bai	ez
30. Argi geratu al zaizu © gogoan hartzea zer den?	bai	ez
<b>PUNTUAK GUZTIRA</b>		

## ZER MODUZ ARITU ZARA?


**Zure baiezeko erantzunak 25 baino gehiago izan badira,** agian zure ikerlana, originala denez, esdilibro.es orrian argitara daiteke.



# Bejoinezula,

Zurea *de libro* ikerketa bat da!

[www.esdelibro.es](http://www.esdelibro.es) orriko editorearen ateraino iristeko behar beste puntu lortu duzunez, orain, igorri guri sinopsi bat, zure lana eta egin duzun bidea labur-labur azalduz. **Sartu esdelibro.es orrian, Lehiaketa atalean, eta instrukzioak jarraitu.**



Zure lana [esdelibro.es](http://www.esdelibro.es) orrian argitaratzen baduzu, zeure burua ezagutzera emango duzu, zure ikerketaren fruitua internauta guztien artean zabalduko duzu, eta ezaupideak partekatuko dituzu, zure moduan *de libro*-koak diren beste egile batzuekin!

# © zalantzak, gogoan hartu ©

<b>1. urratsa</b> Kontratua	<b>Egile oro da bere lanaren erantzule.</b> Edozein egilek, bere obra argitaratze hutsagatik, konpromisoa hartzen du obra zuzendu dion jendearekin: egilea bere lanaren erantzulea da, eta lana burutzeko erabili dituen beste egileen obrekiko begirunea erakutsi behar du. Ikerketak egiterakoan, zure gain hartuko dituzu honako erantzukizunak: zure lanak kalitate onekoak eta pertsonalak izango dira, kontuan hartuko dituzu gai berberaz jardun duten beste egile batzuen lanak, eta erabilitako iturriak beti aipatuko dituzu.
<b>2. urratsa</b> Ikergeia	<b>Abiatu beti zeure ideia batetik.</b> Nahiz eta hasieran gai egokirik ez aurkitu, oso garrantzitsua da lagunek aukeratutakoak errespetatzea, eta zure gaia bilatzeko beste aukera batzuk aztertzea. Inoren ideiak kopiatzea edo inorenez jabetzea ez da ikergai bat hautatzeko bide zuzena. Lanean hasteko, zeurea den ideia batetik abiatzen bazara, askoz hobeto sentituko zara. Horixe baita besteen ideiak errespetatzen ikasteko egin beharreko lehen urratsa.
<b>3. urratsa</b> Plangintza	<b>Kontsultatzen dituzun dokumentuak errespetatu eta aintzat hartu.</b> Zure lanaren plangintza egiterakoan, pentsatu nola errespetatuko duzun uneoro jabetza intelektuala eta gogoan izan dokumentuekin zer egin daitekeen eta zer ez. Zure planean ez sartu egile eskubideak errespetatzen ez dituen asmorik; esate baterako, liburu bat fotokopiatzea horretarako baimenik ez duen leku batean. Baina egin dezakezu, adibidez, beste egile batzuen dokumentuen sintesi bat edota haien lanean oinarritu zeurea egiteko, baldin eta haien aipamena behar bezala egiten baduzu. Kontsultatuko dituzun dokumentuen datuak nola bildu pentsatu behar duzu lana egiten ari zarela behin baino gehiagotan erabiliko baitituzu eta, bereziki, autoreen aipamena nola egin, beren ideiak jasotzen badituzu behintzat.
<b>4. urratsa</b> Ideiak	<b>Aintzat hartu zure ideiak.</b> Gogoratu sortze-lan bat egiten ari zarela. Originaltzat hartu, beraz, zure ideiak eta intuizioak, eta, aldi berean, konturatu zein ahalegin egin behar izan duten egileek erabiltzen dituzun dokumentuak sortzeko.
<b>5. urratsa</b> Iturriak	<b>Kopiatu, fotokopiatu, ebaki eta itsatsi, baina neurritz.</b> Bere garaian autoreek sortu zituztelako dago horrenbeste dokumentu desberdin liburategietan eta aldizkaritegietan. Liburutegi batean dokumentu bat maileguan uzten badizute, errespetatu beti egilearen eskubideak. Fotokopiak egin behar badituzu, egileen eta editoreen baimena duten lekuetan egin. Gauza bera gertatzen da Internetekin: dokumentu bat deskargatzea edo testu bat ebaki eta itsastea erraza izateak ez du esan nahi edozein modutan egin daitekeenik. Dokumentu orok sortzailea du, eta autoreak eskubidea du bere sorkuntza errespetatua izan dadin. Web orrietan agertu ohi diren egile-eskubideen erreserba-oharrak irakurri. Dokumentuak aurkitu ahala, joan datuak jasotzen, gero informazio horiek erabiltzen badituzu haien aipamena egin ahal izateko.

<b>6. urratsa</b> Dokumentuak	<b>Dokumentuak behar bezala identifikatu.</b> Lana egiteko oinarritu zaren dokumentuak aipatzeko, haien datuak beharko dituzu. Horregatik da hain garrantzizkoa, dokumentuak hautatzen ari garen honetan, identifikazio-datu guztiak jasotzen joatea, bibliografía osatzeko garaian haietaz baliatzeko.
<b>6. urratsa</b> Dokumentuak	<b>Zure informazio-iturriak errespetatu.</b> Ikerketarako hautatu dituzun dokumentuak antolatzeke, bibliografia-fitxak baliatuko dituzu. Lanaren amaieran ere baliagarriak izango zaizkizu, ikerketan zehar erabili dituzun egileak eta dokumentuak zerrenda batean agertzeko. Horrela, oinarritzat hartu dituzun iturriak erakutsiko dituzu, eta baita egile eskubideak merezi dizun errespetua ere.
<b>7. urratsa</b> Informazioa	<b>Beste egileak aipatu, beren lanen zatiak erreproduzitu badituzu.</b> Normala da zure ikerlanetan beste ikertzaile batzuek argitaratu dituzten iritziez eta datuez baliatzea. Idazlan zatiak erabil ditzakezu, baina begirunez jokatu duzu egileekin eta jabetza intelektualarekin. Idatzi beti, beraz, kontsultatzen dituzun informazioa nondik datorren, gero zure lanean aipatu ahal izateko.
<b>7. urratsa</b> Informazioa	<b>Fotokopiatu edo eskaneatzen baduzu, zintzo jokatu.</b> Gogoratu liburu edo aldizkarietako orrialdeak legalki fotokopiatu edo eskaneatzeko era nagusiak hauexek direla: edo etxean, zure eskanerraz edo fotokopiagailuaz (zeure erabilera pribaturako baizik ez), edo kopia-denda, liburutegi, ikastetxe edo horrelakoetan, beti ere autoreen eta editoreen baimena duten lekuetan, hau da, CEDROren erreproduktzio-lizentzia duten lekuetan.
<b>7. urratsa</b> Informazioa	<b>Eman beti erabilitako iturrien berri.</b> Informazio batez baliatzen zaren aldiko, adierazi non aurkitu duzun; zureak ez diren arrazoibideak erabiltzen dituzun aldiko, zehaztu zein pertsonaren edo erakunderen iritzia diren eta horiekin bat zatozen edo ez. Ez plagiatu inoren iritzirik. Ez zaitetz zurea ez den ezeren jabe egin. Lan baterako beste egile baten obrarik erabiliz gero, ez ahaztu aipatu egin behar duzula. Erabili beti irakurketa kritikorako proposatu dizkizugun estrategiak, argi eta garbi utziz zein ideia diren zureak eta zeintzuk ez.
<b>8. urratsa</b> Gidoia	<b>Ikerketako aurkikuntzak, zeure bihurtu.</b> Urrats honetan saiaturako zara ikerketan egindako aurkikuntzak ahalik eta gehien zehazten zure gidioan, eta ukitu pertsonala ematen gidioari.
<b>8. urratsa</b> Gidoia	<b>Gogoan izan aholku hauek:</b> Argi eta garbi utzi zein ideia diren zureak eta zeintzuk ez. Ez kopiatu idazlan zati luzeak, bestela zure lanak «ebaki eta itsatsi» adabaki pilo bat emango du. Aintzat hartu eta errespetatu erabilitako dokumentuen egileen ekarpenak, eta adierazi beti zure informazio-iturriak.

<b>9. urratsa</b> Originala izan	<p><b>Pentsatu kopiatzea, antzeratzea eta plagiatzea ez direla gauza bera.</b></p> <p>Plagioa delitu bat da, egileen jabetzaren eskubidea urratzea baitakar jatorria ezkutatuz besteren ideiez eta sortze-lanez jabetzeak. Jatorrizko sortze-lanak, aldiz, nahiz eta lehenagoko ezaupideak eta ikerketak erabili, zerbait berria eskaintzen du beti: gaiaren osagarri den ideia bat, ikusmolde berri bat, interpretazio berri bat, sintesi edo biltze original bat, etab.</p> <p>Zure lanaren konklusioetan, jaso dituzun informazioen, hitzez hitzeko aipuen, irudien edo erabili duzun beste edozeren egileak aipatu behar dituzu, guzti-guztiak.</p>
<b>10. urratsa</b> Txostena	<p><b>Eskubideak dituzu, sortzaile gisa ere.</b></p> <p>Jabetu behar duzu ikerlana burutzeko egin behar izan duzun ahalegin handiaz. Zeu ere sortzaile zarenez, eskubide batzuk dagozkizu, eta besteek aintzat hartu beharko dituzte.</p>
<b>10. urratsa</b> Txostena	<p><b>Informazio grafikoak ere jabea du.</b></p> <p>Informazio grafikoa ere (marrazkia, eskema, argazkia, infografia, plano, mapa, etab.) pertsona baten edo enpresa baten jabetza intelektuala izan daiteke. Horregatik, zure lanean edozein irudi sartu baino lehen, erabilpen-baldintzak zeintzuk diren jakin beharko duzu, sortzaileei baimena eskatuko diezu, eta denak aipatuko dituzu, jatorrizko iturriak zein egileak.</p>
<b>10. urratsa</b> Txostena	<p><b>Zeuren sortzailea zara.</b></p> <p>Lanari amaiera ematen diozun unetik, zeure ideien jabe zara eta horien jabetza intelektuala ere zeurea da. Honenbestez, ideiak inork beste lan batzuen abiapuntu bezala erabiliko balitu, zure izena aipatu behar luke. Ez ahaztu hori!</p>
<b>11. urratsa</b> Interneten	<p><b>Gogoan hartu beti ©.</b></p> <p>Ibilbide guztian zehar, jabetza intelektuala errespetatzeko ideia batzuk eman dizkizugu. Gonbita egiten dizugu © gogoan har dezazun beti. Egingo duzu, ziur; honaino iritsi bazara honezkero jakingo duzu-eta zuk ere, sortzaile zaren aldetik, zeure eskubideak dituzula.</p>

# Ohiko galderak

## Nor har daiteke egile bezala?

Legeak egileztzat hartzen du obra literario, artistiko edo zientifikoren bat sortzen duen pertsona.

## Egile eskubideaz ari garela, zer da obra bat?

Obra bat da literatura, arte edo zientzia lan jatorrizkoa, edozein euskarriren bitartez adierazten dena: ukigarria zein ukiezina, gaur egun ezaguna nahiz etorkizunean asmatuko dena. Jabetza Intelektualaren Legeak obraren tituludunari haren gaineko hainbat ahalmen ematen dio.

## Nola egiazta dezaket lan bat nirea dela?

Lan baten jabetza egiaztatzeko modurik errazena da haren izena Jabetza Intelektualaren Erregistroan ematea. Hala ere, kontua balitz berea ez izan arren lanaren izena erregistroan ematerakoan bere burua zilegi ez den eran egile bezala agertu den baten aurka egitea, orduan zuzenbideak onartzen duen edozein froga erabil daiteke (lekukoak, agiriak, perituak, etab.). Beharrezkoa izango da, baina, jardunbide judizial bati ekitea, epaile batek erregistro-izendapen okerra deusezta dezan eta lanaren benetako egilearen izenean erregistra dezan. Nolanahi ere, lan baten jabetza intelektuala egileari berari dagokio, haren sortzailea izateagatik ez beste ezergatik.

## Zer da Jabetza Intelektualaren Erregistroa?

Jabetza Intelektualaren Erregistroa bulego publiko bat da, eta pentsaturik dago egileek eta beste tituludunek tresna bat gehiago izan dezaten, beren sortze-lan literario, zientifiko eta artistikoen gaineko eskubideak babesteko orduan.

Ez da nahitaezkoa obraren izena ematea erregistroan, jabetza intelektualaren eskubidea izateko harekiko; eskubide horiek egileari baitagozkio berez, obra sortu izanagatik. (Informazio gehiago nahi izanez gero: [www.mcu.es/propint/](http://www.mcu.es/propint/))

## Existitzen al da ideien jabetza intelektualik?

Ez, Jabetza Intelektualaren Legeak sortze-lanak babesten ditu; alegia, ideien, teorien, sentimenduen-eta adierazpena bitartekoren baten bidez egiten denean; ez, ordea, ideia hutsak.

## Liburu bat idatzi dut, baina oraindik ez da argitaratu. Legearen babesik ba al du?

Bai, obra baten gaineko eskubideak egileari dagozkio obra sortu izanagatik. Obra sortzen den unetik babesten da (jatorrizko lan bat izan behar du, noski), eta ez da beharrezkoa inongo erregistrotan egotea, baina praktikan, obra hobeto babestekotan, Jabetza Intelektualaren Erregistroan izena ematea gomendatzen da.



## **Nire liburu bat argitaratzeko, argitaletxeak edizio-kontratu bat sinatzea eskaini dit. Zer da kontratu hori?**

Edizio-kontratuaren bitartez, egileak aldi baterako lagatzen dizkio editoreari lana erreproduzitzeko eskubidea (ale inprimatuak normalean) eta banaketa komertziala, ordainsari baten truke. Jabetza Intelektualaren Legeak ezartzen du edizio-kontratu baten gutxienerako edukia zein den.

## **Ipuin-sorta bat idatzi dut. Zeintzuk dira nire eskubideak horiekiko?**

Gurean indarrean dagoen legeak ezartzen du lan baten jabetza intelektuala egileari dagokiola, lan hori sortze hutsagatik. Jabetza intelektual horren barruan badira, alde batetik, norberari dagozkion eskubideak (eskubide moralak) eta ustiapenekoak bestetik (ondarezko eskubideak), zeinak egileari baino ez diote ematen lanaren xedapen erabatekoa eta ustiapeneko eskubidea, legeak berak ezartzen dituen mugak izan ezik, jakina.

## **Lankide batzuek eta nik eskola-liburu bat idatzi dugu argitaletxe baterako. Babesten al gaitu Jabetza Intelektualaren Legeak?**

Bai, lege honek jatorrizko lanen egileak babesten dituen heinean. Halere, kasu batzuetan, testu-liburuen gaineko eskubideak liburuak kaleratu dituen argitaletxeari dagozkio soilik, “Talde-lanean eginiko obrak” bezala argitaratu badira; zentzu horretan ulertu behar da Jabetza Intelektualaren Legeak 8. artikuluan adierazten duena, behinik behin: “Talde-lanean eginiko obratzat hartzen da pertsona natural edo juridiko baten ekimenez eta koordinazioz sortu ez ezik bere izenez argitaratu eta zabaltzen dena; eta hainbat egileren lankidetzaren fruitua da, haien ekarpen pertsonalez sortze-lan bat bakarra eta autonomia osatuz, eta, halaxe izateko sortua delarik, ezin zaio egotzi egileetako ezeini bakarka obra osoaren gaineko eskubidea. Kontrakoa hitzartzen ez den artean, talde-lanean eginiko obraren gaineko eskubideak dagozkio haren ekimena izan ez ezik hura koordinatu, argitaratu eta bere izenez zabaldu duen pertsonari”.

## **Zer esan nahi du obra bat jabego publiko izatera igaro dela?**

Eskuarki, obra bat ustiatzeko eskubideek irauten dute egilea bizi den artean eta hura hil ondorengo hirurogeita hamar urteetan. Epe hori bete eta gero esaten da obra jabego publikoa izatera igaro dela eta, beraz, erreproduzitu edo erabilia izan daiteke, oinordekoei baimena eskatzeke eta inolako ordain ekonomikorik emateke.

Hala ere, jabego publiko diren obra horiek hirugarren pertsonak erabili ahal izan arren, beti errespetatuko da egilearen eskubide morala. Kontuan hartu behar da, gainera, obra bat jabego

publikora igaro arren, litekeena dela erreproduzitu nahi den edo beste era batera erabili nahi den edizioa, berriagoa delako, jabego publikokoa ez izatea, eta edizio horren gainean eskubideak dituzten tituludunak existitzea (editoreak normalean).

Egilea hil eta hurrengo urteko urtarrilaren batetik aurrera hasten da hirurogeita hamar urteko babes epea.

### **Klase bat prestatzen ari naiz. Egin al dezaket ikasleei banatzeko txosten bat, hainbat liburutako kapituluak eta aldizkari batzuetatik jasotako artikuluen fotokopiez osaturik?**

Egin daiteke, erreproduzitu nahi diren lanen eskubideak dituzten tituludunen baimena izanez gero. Hori lortzeko bide erraz bat da CEDROren erreproduzizio lizentzia erabiltzea; erakunde horrek liburu, aldizkari eta bestelako publikazioen egileen eta editoreen izenean ematen baitu baimena. Hala ere, Jabetza Intelektualaren Legeak esaten du ez dela beharrezkoa tituludunen baimenik (ez eta, hortaz, CEDROren lizentziarik ere) irakaskuntza arautuan irakasle batek, bere eskolak argigarriak izateko asmoan, obren zati txikiak erreproduzitzen dituenean gelan erabiltzeko. Legearen arau orokorrak dio obra bat erabiltzeko haren egileen baimena behar dela, eta esan dugu arau orokorraren salbuespena dela arestian aipaturikoa, baina salbuespen hori ez dagokie testu-liburuei, obren erreproduzizio luzei, ez eta irakasleak ez diren beste pertsona batzuek eginiko kopiei edo gelan erabiltzeko ez diren kopiei; kasu horietan guztietan beharrezkoa baita tituludunen lizentzia.

### **Liburuak eta aldizkariak legez fotokopiatu edo eskaneatu daitezke?**

Bai, legeak ezartzen dituen baldintza jakin batzuk betez gero behintzat. Arau orokor gisa, egin daiteke eskubideen tituludunek baimena emanaz gero; egileek eta editoreek, alegia. Baimen hori tituludunen eskutik zuzenean lor daiteke, edo, bestela, CEDROren erreproduzizio-lizentzia baten bitartez.

Fotokopiatzea edo eskaneatzea ere legezkoa da, etxean egiten bada eta norberak bakarrik erabiltzeko.

### **Zer da CEDRO, eta zer egiten du?**

CEDRO da obra idatziaren alorrean egile eskubideen kudeaketan jarduten duen erakundea. Elkarte bat da, idazle, itzultzaile, kazetari eta editorez osatua, zeinak aritzen diren beren ondarezko eskubideen alde eta horien kudeaketa kolektiboa egiten. CEDROren eginkizuna da, Espainia mailan, kultura idatziaren sortzaileen lan-baldintzak hobetzea, eta herritarrei legezko bideak eskaintzea, liburuak, aldizkariak eta gainerako argitalpenak eskura izan ditzaten. (Informazio gehiago nahi izanez gero: [www.cedro.org](http://www.cedro.org))

### **Eskola-lan bat egiterakoan, kopia al ditzaket erabiltzen ari naizen dokumentuen (liburu, aldizkari, eta bestelakoen) zatiak?**

Bai, eta egin daiteke, gainera, egileari baimena eskatzeke; baldin eta kopia hori aipamen gisara egiten bada, lanaren azterketa, azalpena edo iruzkin kritikoa egiteko, eta lanaren egilea nor den eta aipua zein iturritatik jaso den behar bezala adierazten badira.

### **Institutuan agintzen diren lanen helburua ikastea dela kontuan harturik, zilegi al da egileren baten obra antzeratzea edo haren obran oinarritzea norberarena egiteko orduan?**

Ikasteko baldin bada, zilegi da antzeratzea, baina ez dira ahaztu behar antzeratu, aipatu eta plagiatzearen artean dauden aldeak. Plagioa (inoren obrak norberarenak balira bezala agertzea) delitutzat jotzen da.

Zalantza gehiago izanez gero, [esdelibro.es](http://esdelibro.es) orrian kontsulta dezakezu. Han ohiko galdera gehiago aurkituko duzu, eta nahi baduzu, gure aholkularitza zerbitzuarekin harremanetan jar zaitezke: [asesoria@esdelibro.es](mailto:asesoria@esdelibro.es)

# Bibliografía

BERNABEU, N. *Técnicas de estudio I. Comprender y organizar la información y el conocimiento*. Madril: Bruño, 2002.

BERNABEU, N. *Técnicas de estudio II. Valorar y enjuiciar los textos: la lectura crítica*. Madril: Bruño, 2003.

BLAXTER, L.; HUGHES, C.; TIGHT, M. *Cómo se hace una investigación*. Bartzelona: Gedisa, 2001.

CHEVALIER, B. *Lecture et prise de notes*. Paris: Nathan, 1992.

CHEVALIER, B. *Méthodes pour apprendre à l'école, au collège*. Paris: Nathan, 1993.

ILLESCAS, M.J. *Con ingenio seré un genio IV. Técnicas de estudio y trabajo intelectual*. Madril: Editex, 2004.

Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundea <http://www.wipo.int/portal/index.html.es>

WRAY, D.; LEWIS, M. *Aprender a leer y escribir textos de información*. Madril: Morata, 2000.

# Jarduerak gaiez gai

## **Ikaslearen jarrerak**

Zuk zer: ikertu, edo lana paretik kendu?	1. urratsa
Termometroa	1. urratsa

## **Interneteko bilaketa aurreratua**

Bilaka eta bilaka	5. urratsa
-------------------	------------

## **Ikaslearen eginbideak**

Ikertzailearen kontratua	1. urratsa
--------------------------	------------

## **Lana zehatzuz**

Ondo pentsatu, gero!	3. urratsa
Plangintza egin	3. urratsa

## **Dokumentuak**

Zer egin ohi duzu zuk?	2. urratsa
Dokumentuak arakatu	6. urratsa
Dokumentuak hautatu	6. urratsa
Datu bibliografikoak antolatu	6. urratsa

## **Diagrama bat egiten**

Diagrama bat egin	4. urratsa
Zure diagrama osatu	8. urratsa

## **Ikerlanaren gaia hautatu**

Arrastoari jarraitu!	2. urratsa
Zer egin ohi duzu zuk?	2. urratsa

## **Ikerketa baten aldiak**

Urratsez urrats	1. urratsa
-----------------	------------

## **Ikerketaren ebaluaketa**

Zurea <i>de libro</i> ikerketa bat al da?	11. urratsa
--	-------------

## **Informazioa eskuratu**

Irakurle zorrotza al zara?	7. urratsa
Nire galderen erantzunak aurkitu	7. urratsa
Aipatzeko, oharrak	

hartu lehenengo	7. urratsa
Bi testu alderatu	7. urratsa
Egintzak eta iritziak bereizi	7. urratsa

### Galderak egiten

Formula	2. urratsa
---------	------------

### Informazio-iturriak

Iturriak	5. urratsa
Liburutegi batera joan	5. urratsa
Bilaka eta bilaka	5. urratsa
Zer egin ohi duzu zuk?	6. urratsa

### Irakurketa kritikoa

Irakurle zorrotza al zara?	7. urratsa
Egintzak eta iritziak bereizi	7. urratsa

### Giltza-hitzak

Non daude	
informazioaren giltzak?	4. urratsa
Matrioskak	4. urratsa
Planetak eta sateliteak	4. urratsa

### Lanaren aurkezpena

Erabaki nolako txostena nahi duzun	10. urratsa
Zirriborroa idatzi	10. urratsa

### Lana esdelibro.es orrian argitaratu

Zurea <i>de libro</i> ikerketa bat al da?	11. urratsa
---	-------------

### Azken txostena idatzi

Gidoia egin	8. urratsa
Txostena idatzi	10. urratsa
Egiaztatu...	10. urratsa
Ahozko azalpena	10. urratsa
Horma-irudia edo panela	10. urratsa

### Errespetua egile eskubideari

Balio du, ez du balio	1. urratsa
Aipatzeko, oharrak jaso lehenengo	7. urratsa
Aipatu	9. urratsa
Parafraseatu	9. urratsa
Bibliografia	9. urratsa
Zurea <i>de libro</i> ikerketa bat al da?	11. urratsa





#### EKIMEN HONEN BULTZATZAILEA:



#### ERAKUNDE HAUEN LAGUNTZAZ:



Dokumentu hau  
Es de libro  
heziketa-programaren  
parte da: CEDROren ekimenez  
hezuntza komunitate  
osoari zuzentzen zaion  
programa berezia,  
irakurketa, idazlanen  
sorkuntza eta egile  
eskubideekiko errespetua  
sustatzeko.